

# Elgoibarko Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren Arreta eta Koordinaziorako II Protokoloa



2  
0  
2  
5



## Edukia

1. Sarrera .....	3
2. Arrazoiaren azalpena .....	4
3. Sinatu duten eragileak.....	6
4. Adostasunak eta konpromisoak .....	7
5. Arau esparrua eta arreta-subjektuak .....	9
6. Helburu orokorra eta zehatzak.....	11
7. Jarduketa eta koordinazioa gidatzen duten printzipioak .....	12
8. Indarkeriarik gabeko bizitzarako sistemak eta erakundeak .....	14
9. Jarduteko eta koordinatzeko jarraibideak.....	16
9.1 Jarduketa arlo sozialean .....	16
9.2 Jarduketa osasun arloan.....	22
9.3 Poliziaren arloko jarduketa.....	29
9.3.1 Ertzaintza .....	29
9.3.2 Udaltzaingoa .....	36
9.4 Berdintasun Sailaren jarduketa .....	40
10. Erakundearen artean koordinatzeko mekanismoak.....	43
11. Jarraipena eta ebaluazioa.....	46
12. Berrikuspena eta indarraldia .....	46
13. Datuen babesa.....	46
I. ERANSKINA – BALIABIDEEI BURUZKO INFORMAZIOA .....	48
II. ERANSKINA TELEFONO ERABILGARRIEN AGENDA. ELGOIBARKO PROTOKOLOA.....	50
III. ERANSKINA: DATU PERTSONALEN BABESA.....	51
IV. ERANSKINA: DATU PERTSONALAK LAGATZEKO BAIMENAREN AKTA .....	52
V. ERANSKINA: ARRISKUA BALORATZEKO TRESNA .....	56
VII. ERANSKINA: KASUAK BIDERATZEKO FUTXA.....	59
VIII. ERANSKINA: FLUJOGRAMAK .....	60
GIZARTE EREMUA: GIZARTE LARRIALDIKO KASUETARAKO PROZEDUREN ETA JARRAIBIDE OROKORREN MAPA.....	60
OSASUNARLOA: PROZEDUREN MAPA ETA JARRAIBIDE OROKORRAK LEHEN MAILAKO ATENTZIOAN, ATENTZIO E SPEZIALIZATUAN ETA ATENTZIOAN.....	61
POLIZIA-EREMUA: PRESAZ JARDUTEKO PROZEDUREN ETA JARRAIBIDE OROKORREN MAPA.....	62

## 1. Sarrera

Emakumeen aurkako indarkeria matxista **Giza Eskubideen urraketa** da eta haien eskubideak eta funtsezko askatasunak gauzatzeko oztopoa da. Emakumeen aurka gauzatzen da, emakume izate hutsagatik. Askotariko formak ditu eta emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka egiten du. Ondorioz, giza eskubideen urraketa onartezina da, eta lehen lerroko arazo soziala eta osasun-arazoa. Botere publikoek emakumeentzako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzeko jardun behar dute.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista emakumeen aurka erabiltzen da, sexuaren eta generoaren arabera **desberdin egituratuta dagoen sisteman** emakume izate hutsagatik. Indarkeria honek emakumeak eta “femeninotzat” hartzen den oro menderakuntza egoeran kokatzen ditu gizonekiko eta “maskulinotzat” hartzen den horrekiko. Indarkeria desberdintasunaren adierazle izateaz gain, desberdintasun hori erreproduzitzeko eta betikotzeko **kontrol sozialerako tresna** da.

Indarkeria hori adin, talde sozial, kultura eta herrialde guztietan gauzatzen da eta tamaina izugarria duen arazo soziala da, gure biztanleriaren intzidentzia handia baitu, ondorio fisiko eta psikiko larriak sortzen baititu, eta gizarte osoarentzat kostu sozial eta ekonomiko altua baitu.

Indarkeria-mota horren biktimak eta biziraun dutenak egoera bereziki ahulean daude, indarkeria mota horren izaeragatik, bai eta indarkeria horren kausen eta ondorioen izaera multidimentsionalagatik ere. Horregatik, funtsezkoa da erakundeen esku-hartze koordinatua artikulatzea, diziplina anitzekoa, eta genero-ikuspegia duena, prebentzioa, hautematea, babesa, arreta osoa eta osatzea bermatzeko, osasunaren, gizartearen, justiziaren eta poliziaren aldetik.

Hori guztia dela eta, Elgoibarko Udalak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta udalerriko emakumeak indarkeria matxistarik gabe bizitzeko neurriak sustatu ditu. Udalerrian berriki onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean lehentasunezko helburu gisa ezarri zen indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzea. Horretarako, beste hainbat jarduketarekin batera, uste dugu beharrezkoa dela egungo protokoloa indarkeria matxistaren arloan dagoen araudira egokitzea .

## 2. Arrazoen azalpena

Protokolo hau sinatu dugun erakundeek honako hau uste dugu:

- Emakumeen aurkako indarkeria matxista **emakume izate hutsagatik** gauzatzen dela emakumeen aurka, portaerak eta adierazpideak edozein izanik ere; **erakundeak aipatzen dituen Giza Eskubideen urraketa larria dela; eta emakumeak beraien funtsezko eskubideak eta askatasunak gauzatzeko oztopoa dela.**
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista **desberdintasunak dituzten botere-harremanen adierazpena eta emakumeen aurkako diskriminazioa** dela, eta, gainera, generoaren arabera desberdintasunak dituzten egiturak iraunarazteko funtzio soziala duela.
- Emakumeen aurkako indarkeriak emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten **egiturazko ezberdintasun egoeran ditu erroak**. Desberdintasun horri gizaratean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu banaketa horrek, bai eremu publikoan, bai pribatuan.
- Indarkeria sexista desberdintasunaren adierazpideetako bat izateaz gain, ziurrenik larriena, kontrol sozialerako tresna garrantzitsua ere badela, desberdintasun hori mantentzeko eta betikotzeko.
- Egiturazko indarkeria eta indarkeria sinbolikoa direla indarkeriaren sostengua, nahiz eta pertsona baten jokabidean zuzenean eta modu linealean ez islatu, pertsonak eta bere istorioak berak egiten baitute indarkeria mota horien bitartekaritza subjektiboa.
- Indarkeria zuzena dela errazen hauteman daitekeen indarkeria, pertsona batek beste baten gainean egiten duen berriazko ekintza baita, hainbat adierazpide dituela, ondorio agerikoak eta ikusezinak dituela, eta adierazpiderik muturrekoenetan indarkeriaren hartzailean heriotza eragiten duela. Indarkeria zuzen hori ez dela gertakari isolatu bat emakume guztion bizitzan, sozializatzeko moduekin eta prozesu horren barneratze partikularrekin lotuta baitago.
- Gorputz guztiek ez dutela indarkeriaren mailaren eta formaren esposizio bera eta gorputz batzuetan hainbat zapalkuntza mota gurutzatzen direla (adin-lerroaren muturretan dauden emakumeak, desgaitasunak edo funtzionatzeko modu desberdinak dituztenak, feminitate tradizionalaren estereotipo fisikoarekin eta portaerarekin apurtzen dutenak, etab.). Horiek indarkeriariarekiko esposizioaren ondorioz handienak bizitzeko arrisku handiagoa dute.
- Normalizatutako, ukatutako edo minimizatutako indarkeriaren etengabeko esposizioa izateak indarkeria horrekiko erresistentzia-moduak eta tolerantzia-mailak ere sortzen dituela.
- **Indarkeria hainbat espaziotan adierazten** dela: publikoetan, hala nola eskolan, kalean, lan-arloan, garraio publikoan, aisialdi-eremuetan, espazio birtualetan eta abar; eta baita pribatuetan ere, besteak beste, familian edo bikotekidean.
- Emakumeen aurkako indarkeria **matxista osasun publikoko eta lehen mailako** arazoa da, biktimei sufrimendua edo min fisikoa, sexuala, psikologikoa, soziala, kalte sozioekonomikoa edo ondarearena eragiten dielako eta indarkeria matxistaren biktima zuzenen, esposizioagatikiko biktimen eta indarkeriaren biktimen osasuna kaltetzen duelako.

- Emakumeak ez direla bizi duten indarkeria zuzenaren erantzuleak, erantzuleak soilik indarkeria gauzatzen dutenak direla. Hala ere, horrek ez ditu harreman desegokiekin edo arriskutsuekin apurtzeko erantzukizunetik salbuesten, horrek dakartzan zailtasunak kontuan hartuz. Hori guztia dela eta, **emakumeei daude zuzenduta protokolo honetako ekintzak.**
- Botere publikoek emakumeentzako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzeko jardun behar dute. Oinarrizkoa da esku-hartze instituzional koordinatua, diziplinartekoa eta genero ikuspegia duena eratzea, alderdi sanitarioan, sozialean, judizialean eta polizialean erabateko arreta eta prebentzioa, hautematea, babesa, erabateko arreta eta erreparazioa bermatzen dituen.
- Zerbitzu publikoei **laguntza eskatzen dieten emakume gehienak ama ere badirela.**

### 3. Sinatu duten eragileak

ELGOIBARKO UDALA

Sin.  
Alkatea

ERTZAINZA

Sin.  
Eibarko Ertzain Etxeko Unitateko Buruzagitzaren  
ikerketaburua

OSAKIDETZA

Sin.  
Debararrenako ESlaren kudeatzailea-Osakidetza

## 4. Adostasunak eta konpromisoak

Protokoloa sinatu duten eragileek honakoa adostu eta konpromisoa hartu dute:

**Lehenengoa:** Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen hautemate goiztiarrean, ikerketan, prebentzian, arretan, babesean eta osatzean, haur eta nerabeenean barne, **esku hartzen duten erakundeen arteko koordinazio eta lankidetzaren maila gorena eta hobea** lortzea, ematen zaien arreta hobetzeko eta indarkeriarik gabeko bizitza-proiektua hasi ahal izateko. Horretarako, ekintza-jarraibide homogeneousak finkatu dira.

**Bigarrena:** **Esku hartzen duten eragileen jarduketaren protokolo honetan ezarritako printzipio eta konpromisoetara egokitzea**, esku hartzen duten eragileek beraiek zehaztutako jarraibideetatik abiatuta, bakoitzaren eskumenak errespetatuz eta egiten duten esku hartzearekiko erabateko errespetua izanez.

**Hirugarrena:** Protokoloa hedatzeko, ezartzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko **baliabide materialak, giza baliabideak eta teknikoak** bideratzea eta protokoloak indarrean jarraitzen duen bitartean mahai eta sektore desberdinetan egingo diren bileretan eta prestakuntzetan parte hartzea.

**Laugarrena:** **Erakunde parte-hartzaile bakoitzean erreferentziazko pertsona** finkatzea, arreta- eta koordinazio-zereginari jarraipena egiteko, baita titularraren hutsegiteak ordezkatzeko norbait izendatzea ere<sup>1</sup>.

**Bosgarrena:** **Protokoloaren edukiak zabaltzea** sinatu duen alde bakoitza osatzen duten edo atxikita dauden eta indarkeria matxista jasaten duten pertsonen arretan jarduten duten profesionalen artean. Horretarako, kasu bakoitzerako egokiak diren bitartekoak erabiliko dira: protokoloa bidaltzea, jarraibideak, zirkularrak, esku-orriak, bilerak, etab.

**Seigarrena:** Protokoloa sinatu duten erakundeak ordezkatzeko dituzten profesionalen **gaitasuna, sensibilizazioa eta emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako prestakuntza sendoa** sustatzea, hautemateko, erreparaziorako eta arreta espezializatu integral eta ahalduzailerako.

**Zazpigarrena:** **Desgaitasun fisikotik edo psikikotik eratorritako behar bereziak edo zaurgarritasuna handitzen duten beste baldintza batzuk** dituzten emakumei arreta berezia ematea. Arreta eta jada badauden baliabideak malgutuko dira beren beharrak egoki asebetetzeko, espazioak egokitzea, etxeko arreta, jatorrizko hizkuntzarako itzulpen-zerbitzuak edo zeinu-hizkuntza, besteak beste.

**Zortzigarrena:** **Emakumeen aurkako indarkeria matxistari egiturazko erantzuna ematen saiatzea:** hizkuntzaren erabilera, publizitatea eta irudiak zainduz eta erakunde sinatzaileen artean egiten diren politiketan estereotipoak eta genero-rolak ez erreproduzitzen.

**Bederatzigarrena:** Pairatzen duten indarkeriaren ondorioz **emakumeek jasaten dituzten kalteen erreparazioa** sustatzea eta ahalduzkerako haien prozesu indibidualak eta kolektiboak indartzea, baliabide eta zerbitzu nahikoak, irisgarriak eta kalitatezkoak eskainita Erreparazioa funtsezkoa da indarkeria jasaten duten emakumeen osatze-prozesuan eta lehengoratzeko, indemnitazioa, errehabilitazioa, gogobetetzea eta ez erreparatzeko bermea barne hartu behar ditu.

---

<sup>1</sup> Ikus II. ERANSKINA

**Hamargarrena: Erakundeen Arteko Koordinazio Taldea eratuko da maila tekniko eta politikoan.** Halaber, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan esku hartzen duten beste gizarte-eragile batzuen parte-hartzea sustatuko da Protokolo honetan ezarritako koordinazio-mekanismoen bitartez, adibidez, emakumeen elkarteena, ikastetxeena, kultur arloko ordezkariena eta eragile sozioekonomikoa.

**Hamaikagarrena: Udalerrian dagoen indarkeria matxistaren egoeraren informazioa biltzea,** arretarako eta koordinaziorako politikak diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko, indarkeriaren inpaktua nolakoa den ezagutzea ahalbidetzen duten adierazleen bidez.

**Hamabigarrena:** Protokolo honek gehienez ere lau urteko indarraldia izango du, eta beste horrenbeste luzatu ahal izango da, baldin eta erakunde sinatzaileek aho batez hala erabakitzen badute.

**Hamahirugarrena:** Herritar Batzorde Informatzailean, Udalaren Jarduteko eta Erakundeen artean Koordinatzeko Protokolo hau onartzea, genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako arreta hobetzeko.

**Hamalagarrena:** Halaber, erakunde sinatzaile guztiek beren lan-zentroetako langileen artean protokolo honetan jasotakoa eta sistema bakoitzaren jarduteko jarraibide espezifikoak zabaltzeko duten konpromiso politiko eta tekniko jasotzen da.

**Hamabosgarrena:** Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko politika garatzea eta udalerrian egiten diren genero-indarkeria prebenitzeko ekimenak babestea.

## 5. Arau esparrua eta arreta-subjektuak

Kontuan harturik:

- Emakumeen aurkako indarkeria hasieran mugimendu feministak ikusarazi zuen arazoa dela eta hortik ikasi dugula errealitate bat izendatzeko moduak hura ulertzeko modua ere adierazten duela.
- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eztabaida terminologikoan hainbat eragile sozialek egin dutela ekarpena (akademikoak, legelariak, psikologoak, gizarte-langileak, etab.) hainbat ikuspegitatik eta beti ez dutela ikuspegi feministarik izan.
- Indarkeria horren gaineko ezagutza-mailan aurrerapausoak eman ahala, izendatzeko modu berriak agertzen direla, indarkeriak hartzen dituen formak eta adierazpideak hobeto ulertzeko.
- Proposamen terminologikoez izendatzeko beharraz gain, interes politikoak ere adierazten dituztela.
- EAEn lege honek markatzen duen proposamen terminologikoa dagoela: **1/2023 legegintzako dekretua, martxoaren 16koa, EAEn emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena** (aurrerantzean, Berdintasun Legea). Dokumentu honetan terminologia hau erabiliko da.

Berdintasun Legeak ezartzen du Euskadiko botere publikoen lehentasuna izango dela emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen arreta integrala, osatzea eta erreparazioa bermatzea. Era berean, gaiaren erreferentziazko nazioarteko araudiarekin bat, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat hartzen du emakumeen aurka egiten den indarkeria guztia, baita haurrek eta nerabeek eta emakume transexualek emakume izateagatik jasaten dutena ere, edo neurrigabe eragiten diena, bai eremu publikoan, bai pribatuan.

Indarkeria gauza daiteke ekintza bidez edo ez-egitearen bitartez, eta bitartekoak fisikoak, psikologikoak, edo ekonomikoak izan daitezke, mehatxuak, larderiak eta behartzeak barne; ondorio gisa mina, sufrimendua edo kalte fisiko, sexual, psikologiko, sozial, sozioekonomiko edo ondarearen kaltea sortzen dute.

**Emakumeen aurkako indarkeria matxista** osatzen dute bikotean edo bikote ohian gertatzen den indarkeriak, familia barruko indarkeriak, sexu-indarkeriak, feminizidioak, emakume eta nesken salerosketak, sexu-esplotazioak<sup>1</sup>, emakumeen genitalen mutilazioak, behartutako ezkontzek eta kaltegarriak diren beste praktika tradizional batzuek, behartzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak, torturak, indarkeria instituzionalak, jazarpenak, genero-indarkeria politikoak, indarkeria digitalak eta sare sozialetakoak, indarkeria obstretikoak, sexu-eskubideen eta ugaltzeko eskubideen urraketak, baita emakume eta nesken duintasuna, integritatea eta askatasuna kaltetzen duen edo kaltegarria izan daitekeen edozein indarkeria motak ere; nazioarteko hitzarmenetan, Espainiako Zigor Kodean edo estatuko edo erkidegoko araudian jasotzen direnak. Hori guztia, kontuan izan gabe alor publikoan edo pribatuan gertatzen den; horren barnean sartzen dira, besteak beste, eremu hauek: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola, komunitatea, komunikabideak, aisialdi- eta jai-espazioak eta eremu birtuala.

Halaber, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat jotzen da biktimak babesten dituzten pertsonen aurka egiten den indarkeria, bai eta haien hurbileko ingurunearen edo ingurune afektiboaren aurka egiten dena ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurkakoa, emakumea atsekabetzeko borondatez.

---

<sup>1</sup> sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren bereizgarritasunak direla eta, EAEk "Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketaren aurkako Mahaia" izeneko erakunde arteko koordinazio-eremu espezifikoa du, salerosketa-egoeran dauden emakumeen arretarako orientazioa eta jarraibideak ematen ditu. Elgoibarren salerosketa kasuren bat hautemanetz gero, kasua edozein dela ere, Berdintasun Sailarekin harremanetan jartzea gomendatzen da.

Araudiaren arabera, genero-arrazoiengatik indarkeriazko jokabideak lehen pertsonan pairatzen dituzten emakume, nerabe eta haurrez gain, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima dira indarkeria hori gauzatzen den inguruan bizi diren emakumeak, haurrak, nerabeak eta beste mendeko pertsona batzuk, eta haien zaugarritasun egoera dela-eta, indarkeriak zuzenean eragiten dietenak.

Arau esparru honetan, euskal erakundeek<sup>2</sup> 2023ko urtarrilaren 19an diseinatu eta sinatu dute **EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen arreta koordinatzeko Erakundeen Arteko III. Hitzarmena**, tokiko koordinazio-protokoloetarako ezinbesteko erreferentzia gisa sortua.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista terminoak Genero Indarkeriaren kontra Osoki Babesteko Neurrien 1/2004 Lege Organikoak ezartzen duen arau-esparrua gainditzen du. EAE azken urteotan gertatzen ari diren lege-aurrerapenetara aldatzen eta egokitzen ari da; beraz, protokolo hau esparruan gertatzen diren aldaketek baldintzatzen duten dokumentu bizia da. Sinatu duten eragileek beren gain hartu beharko dituzte nazioarteko, estatuko eta erkidegoko araudian jasota dauden eskubideak bermatzeko erakundeen arteko koordinazioa bermatzeko beharrezkoak diren jarduketak.

Indarkeria hori emakume guztien ongizateko eta bizitza-kalitateko maila askotan ondorio larriak dakartzan arazo soziala da. Dena den, adinak, nazionalitateak, jatorriak edo jatorrizko kulturak, desgaitasunak, egoitzaren administrazio-egoerak emakume migratzaileen kasuan, pobrezia edo autonomia ekonomiko faltak, eta elkar gurutzatzen diren beste batzuek, indarkeria-egoera handitzen dute eta emakume askoren hiritartasun-eskubideetan eragiten dute. Gainera, haien egoera eta posizioa kaltetzen dute. Protokolo honetan martxan jarriko diren ekintzek emakumeek paira dezaketen **diskriminazio-egoera anizkoitzari** arreta emango dion sekzioen arteko ikuspegia txertatu behar dute.

**Emakumeen aurkako indarkeria matxista** emakumeen aurka egiten den indarkeria oro da, baita neskatoen, nerabeen eta emakume transexualen aurkakoa ere, emakume izateagatik, eremu publikoan zein pribatuan neurri kanpo eragiten dien hori.

**Indarkeria matxistaren erroan dago desberdintasuna.**

**Protokolo honek babestu behar dituen subjektuak** legeak definitzen dituen espazioetan eta moduetan indarkeria matxista pairatzen duten edo pairatu duten **emakumeak** dira, bai eta hala badagokio bere zaintza, tutoretza edo jagoletza behar duten adingabeak eta bizikidetzaren unitatea osatzen duten mendekotasuna duten helduen kasuan ere.

Erakunde guztiek artatuko dituzte emakumeen aurkako zuzeneko indarkeriaren forma eta espazio guztiak, haien eskumenen arabera, eta gainerako erakundeekin koordinatuko dira protokolo honen helburuak betetzeko.

Gainera, protokolo hau aktibatzen, hurrengo paragrafoan aipatutako legeriatik datozen indarkeriaren definizioak hartuko dira emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat: Istanbulko Hitzarmena; Genero Indarkeriaren kontra osoki Babesteko Neurrien 1/2004 Lege Organikoa; Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurri buruzko abuztuaren 3ko 9/2018 errege lege-dekretua; 8/2021 Legea, Haur eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteko; eta erailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa, sexu-askatasunaren berme integralerakoa.

<sup>2</sup> III. Hitzarmena sinatu duten eragileak: Lehendakaria Eusko Jaurlaritzaren ordezkari, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, EUDEL, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

## 6. Helburu orokorra eta zehatzak

Protokolo honen helburu orokorra **erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea** da, Elgoibarren emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak eta bizirik atera diren pertsonak hautemateko eta haiek artatzeko, **indarkeriarik gabeko bizi-proiektuak hasi ahal izateko arreta osoa, egokia, espezializatua eta kalitatezkoa, babesa eta erreparazioa bermatu ahal izateko.**

Eskubide horiek emakume guztiei bermatu behar zaizkie, haien jatorria, egoera administratiboa, erlijioa edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial gorabehera. Horretarako, hurrengo helburu zehatzak proposatzen dira:

- ✓ **Ekintza-jarraibideak** Ekintzarako **jarraibide eta irizpide** homogeneoak eskaintzea.
- ✓ **Koordinazio etengabea eta egonkorra** Sinatu duten erakunde guztien arteko **koordinazio etengabea eta egonkorra** sustatzea, arreta osoa eskaini ahal izateko informazioa sortzeko eta transmititzeko (legearen esparruan).
- ✓ **Bigarren biktimizazioaren prebentzioa** Ekintza edo omisio bidez bigarren biktimizazioa sor dezaketen ekintzak saihestea. Jardun profesionala ez da asistentzialista, paternalista, biktimista eta etnozentrikoa izan behar. Izan ere, jarduketa desagokiak emakumeen kaltea eta zaurgarritasuna areagotzen ditu eta bigarren mailako biktimizazioa indartu.
- ✓ **Kasuak hautematea eta jarraipena egitea** **Kasuak hautematea** eta arretarako baliabideak erabiltzen dituzten emakumeen **ibilbideen jarraipena** egitea.
- ✓ **Baliabideen sarea** Prebentzioarekin, hautematearekin, arretarekin, babesarekin eta osatzearekin **konprometituta dauden baliabideen sare osoa** osatzea, bai eta horien eraginkortasuna hobetzea ere, ahalduzko ikuspegitik.
- ✓ **Partekatutako ikuspegiak** Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan **printzipio, ikuspegi eta hizkera partekatuak** dituzten koordinatutako baliabideen sarea eratzea.
- ✓ **Komunikazioa beste eragile batzuekin** **Komunikaziorako bideak** ezartzea protokoloaren parte ez diren, baina indarkeria jasaten duten emakumeak hautemateko, sentsibilizatzeko eta ahalduzko lan garrantzitsua egiten duten eragileekin.
- ✓ **Erreparazioaren printzipioa** Indarkeria matxistaren biktimen-biziraun dutenen **erreparaziorako printzipioa** aitortzea erreparaziorako ekintzen bidez, lehengoratzeko, indemnitazio, errehabilitazio, gogobetetze eta ez errepikatze bermearen printzipioei dagokienez.
- ✓ **Ahalduntze-ikuspegia** Indarkeria matxista pairatzen duten edo pairatu duten emakumeen ahalduntze **indibidual eta kolektiborako** ezinbestekoak diren prozesuak eta proiektuak indartzea.
- ✓ **Etengabeko ebaluazioa** Dauden jarraipen-adierazleen datuak biltzea, parte hartzen duten erakunde eta jarduera-eremu guztiei **ebaluazio koordinatua eta etengabea** egiteko aukera emateko, eta hala, egokitu ahal izateko.

## 7. Jarduketa eta koordinazioa gidatzen duten printzipioak

Jarduketa- eta koordinazio-protokoloan jasotako jarraibideak betetzeko, inplikaturako profesionalek eta erakundeek EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen arreta koordinatzeko Erakundeen Arteko III. Hitzarmenaren araberrako **jarduketa-printzipio eta -irizpide** hauek bete beharko dituzte:

- **Bigarren biktimizazioa prebenitzea.** Bigarren biktimizazioa indarkeria instituzional mota bat da eta egitatezkoa zein ez egitatezkoa izan daiteke, eskubideen ezagutza-falta, genero-ikuspegiaren edo haurren ikuspegiaren falta, prestakuntza edo espezializazio egokiaren falta eta abar direla eta. Halaber, bigarren biktimizazioa eskubideak atzeratu, zaildu, eragotzi, mehatxatu edo urratzen dituzten jarduketa desegokiak edo urriak izan daitezke. Nolanahi ere, jarduketek zuzeneko edo zeharkako eragin negatibo edo kaltegarririk ez izatea bermatu behar da.

Protokolo honen esparruan egingo diren jarduketek ahalik eta gehien saihestu beharko dute Protokolo honek aipatzen duen indarkeria jasan duten emakumeen bigarren biktimizazioa. Emakumeak artatzeko erakundeek koordinatu behar dutela hartuko da abiapuntu gisa, ez dira emakumeak izango erakundeak koordinatuko dituztenak.


- **Ahalduntzea, autonomia eta autodeterminazioa.** Indarkeria jasaten duten emakumeak ez dira subjektu pasiboak, beren historia berezian lagundu dieten bizirauteko zenbait gaitasun eta estrategia garatu dituzte. Garrantzitsua da ahalduntze-prozesuak sustatzeko indargune horiek aitortzea eta horietatik abiatzea, emakume izateagatik jasaten duten desberdintasun- eta diskriminazio-egoera estrukturalaren kontzientzia indibiduala eta kolektiboa bultzatzea, esparru horretan gauzatzen baita aurrez aurre duten indarkeria . Kontzientzia hartzen, gaitasunak indartzen, eskura dituzten aukerak aztertzen, erabakiak hartzen eta horiek errespetatzen, beren bizitzak hobetzeko dituzten aukerekiko konfiantza sortzen eta bizitza horiek autoestimuz, autonomiaz, askatasunez eta indarkeriarik gabe bizitzen lagundu behar zaie.
- **Berdintasuna eta ikuspegi interseksionala.** Emakumeen aurkako indarkeria matxista egiturazko genero-desberdintasunetan oinarritzen denez, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen berdintasun errearen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko gizarte askea lortzeko lan egitea. Arreta, babesa eta erreparazioa biktima guztiei bermatu beharko zaie, egoera zibilarengatik, administrazio-egoerarengatik, sexu-orientazioarengatik, adinarengatik, sinesmenengatik edo ideologiarengatik, gutxiengo etnia baten parte izateagatik, nazio edo hizkuntzagatik, maila ekonomikoagatik, edo desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialagatik edo beste edozein baldintza pertsonal eta sozialengatik inor diskriminatu gabe. Horretarako, sinatzen duten erakundeek emakumeek paira dezaketen diskriminazio-egoera anizkoitzari arreta emango dion sekzioen arteko ikuspegia txertatu behar dute. Ikuspegi horrek emakumeen aniztasuna onartzea dakar; bizi dituzten gizarte- eta kultura-desorekak ezagutzea; eta beren identitatean biltzen diren faktore guztiak kontuan izatea. Horrek esan nahi du baldintza pertsonal eta sozialengatik laguntza osora iristeko zailtasun handiagoa duten emakumeekin (desgaitasuna duten emakumeak, emakume migratzaileak) beharrezko neurriak hartuko direla eskubideak bermatuta izan ditzaten, haien administrazio-egoera edozein dela ere.
- **Arreta osoa eta pertsonalizatua.** Protokolo honetan aipatzen den indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haren mendeko pertsonen ematen zaien arretak indarkeria-egoeraren ondoriozko beharrezkoak estaliko ditu, baita bizi duten egoerari buruz duten pertzepzio-maila desberdinak ere. Kasu bakoitzeko egoera pertsonala eta soziala kontuan izanik beharrezko diren esku-hartzeak eginda eta egokienak diren zerbitzuak eta prestazioak aplikatuta.
- **Hurbiltasuna.** Hurbileko arreta eskaintzen saiatuko da; izan ere, hurbiltasun horrek (geografikoa, emozionala eta kasuaren ezagutza) esku-hartze hobea dakar, eta jarraipena, koordinazioa eta kasuaren eztabaida errazten ditu;

era berean, laguntza instituzionalarekiko konfiantza ere sortzen du. Zerbitzuetako pertsonala esku-hartzerako baldintzak ematen ari den lekuraino mugitu ahalko da uneoro.

- **Hautemate goiztiarra eta prebentzioa.** Sinatzen duten erakundeek hautemate goiztiarrerako neurriak garatuko dituzte eta profesionalak era proaktiboan eta koordinatuan jokatuko dute esplizituak ez diren indarkeria matxista kasuak detektatzeko eta behar bezala bideratzeko. Hauteman ondoren neurri multzo bat aplikatuko da biktimen aurkako egoerak eragozteko, bai emakumeen, bai beren tutoretzapean edo zaintzan dauden haur eta nerabeen edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten mendekotasuna duten helduen kasuan.
- **Lehentasuna.** Indarkeria matxistaren biktima diren emakume adingabeen eta helduen arreta lehenetsiko da, baita seme-alabena ere, kasu bakoitzean esku-hartzearen larritasuna balioetsita, betiere, erantzuna ahalik eta azkarren emateko.
- **Haur eta nerabeen interes gorenaren defentsa.** Protokolo honen inplementazioan haur eta nerabeak artatzeko eta babesteko beharrezko neurri guztiak hartuko dira adingabe eta emakume izatearen baldintza bikoitza kontuan izanda. Era berean, biktima diren adingabeen eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak gauzatuko dira, betiere Haurren eta Nerabeen Eskubideei buruzko Konbentzioan aldarrikatutako haurren eta nerabeen interes gorena aintzat hartuta.
- **Eraginkortasuna eta azkartasuna.** Protokolo honetan jasotako jarraibideak ezartzerakoan, artikulazio eraginkorra eta azkarra bermatu beharko da, egoera horien berezko presak eskatzen duen berehalakotasunarekin jarduteko.
- **Segurtasuna eta defentsa.** Jarduera profesionaletik eratorritako betebeharrak juridikoak oinarritzko konpromiso etikoa dira, baita emakumeek merezi duten babesa bermatzea ere. Esku-hartzeak biktimen osotasuna gailenduta bideratuko dira bizi dituzten edo bizi izan dituzten indarkeriazko gertakarien zigorgabetasuna sustatu gabe. Alde horretatik, Protokolo honetan aurreikusten diren arretarako jarraibideak eta ibilbideak betetzeko eta inplikaturako hainbat erakunde koordinatzeko inizatiba profesionalena izan behar da, eta erantzukizuna ez da biktimen gain utzi behar.
- **Erreparazio indibiduala eta soziala.** Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, eta, ondorioz, biktimek erreparazioerako eskubidea dute. Erreparazioerako Eskubidearen oinarritzko elementuak (kaltearen indemnizazioa, erabateko osatzea, egia zabaltzea eta berriro ez errepikatzeko bermeak) bete daitezke indarkeriaren ondorio pertsonal zein sozialei arreta eskainita. Dimentsio indibidual batetik, ondorio fisikoak, psikikoak, sexualak etab jorratu behar dira. Dimentsio sozialari dagokionez, gizarte osoaren inplikazioa sustatzea eta emakumeak komunitatean gizarteratzeko eta haien gizarte-sareak indartzeko gizarteratzea sustatzen duen lan komunitarioaren alde egitea. Erreparazioaren elementuak dira errepikapena saihestea, bigarren biktimizazioari eta estigmatizazioari aurre hartzea, betiere, biktimei aitortza eta ahotsa emanda egia zabalkundeak bermatzeko eta ahalduzko indibidualaren eta kolektiboaren alde eginda.

## 8. Indarkeriarik gabeko bizitarako sistemak eta erakundeak

Indarkeriatik ateratzeko ibilbidean zehar biktima bakoitzak izan ditzakeen beharrak askotarikoak dira eta aldatu egin daitezke denboran zehar, testuinguruaren eta faktore sozio-pertsonalen arabera. Halaber, indarkeriak haien bizitzan dituen inpaktuak ere desberdinak izan daitezke.



Izan ere, behar horiei erantzuteko garaian zerbitzu eta programetako (espezifikoak izan zein ez) operadore askok esku hartzen dute eta horien erantzukizuna hainbat sistema edo arlotako erakundeen gain geratzen da: gizarte-zerbitzuak, justizia, polizia, osasuna, hezkuntza, etxebizitza eta enplegua.

Hurrengo eskemak esku hartzen duten operadore guztien ikuspegia eskaintzen du, **Hitzarmena sinatu duten instituzio guztiak** aintzat hartuz.

Hurrengo grafikoan indarkeria matxista egoeretan esku hartzen duten eragile-multzoa ikus daiteke eta urdinez agertzen dira Elgoibarren emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiten dioten pertsonak artatzeko protokolo honetan zuzenki konpromisoak hartu dituztenak.

BERDINTASUNA	GIZARTE ZERBITZUAK	POLIZIA	JUSTIZIA	OSASUNA	HEZKUNTZA	ENPLEGUA	ETXEBIZITZA
Eusko Jaurlaritza. Emakunde	Eusko Jaurlaritza (Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila)	Eusko Jaurlaritza (Segurtasun Saila)	Eusko Jaurlaritza (Justizia Saila)	Eusko Jaurlaritza (Osasun Saila);	Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza Saila)	Eusko Jaurlaritza (Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila)	Eusko Jaurlaritza (Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila)
Gipuzkoako Foru Aldundia. Berdintasun Organoa.	Gipuzkoako Foru Aldundia. Zainketa eta Gizarte Politika Saila.	Ertzaintza eta udaltzaingoak	BLZ; Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Koordinazio Zentroa	ESI: LMAU; Iarrialdiak; ginekologia, obstetriziaz eta emaginak; buruko osasuna, etab.			Etxebide eta Alokabide. Etxebizitzaren, udal-zuzkiduren eta abarren kudeaketa eta/edo esleipena.
Elgoibarko Berdintasun Saila	Udaletako gizarte-zerbitzuak	EI/GI lantaldeak	Emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegia; Ofiziozko Txanda espezializatua;		Ikastetxeak.	Lanbide eta zentro kolaboratzaileak	

Horrez gain, garrantzitsua da ez ahaztea behar horiek asetzeko garaian **beste operadore eta gizarte-eragile** batzuek funtsezko rola jokatzen dutela eta haien jarduera prebentzioarekin eta hautematearekin lotuta dagoela:

berdintasun-sailak, emakumeen etxeak, ahalduntze-eskolak, emakumeen elkarteak, gazteen ekipamenduak eta elkarteak, kulturalak, etab. Haien jarduketa funtsezkoa da indarkeria honi eta bere biktimei ematen zaien erantzunean; izan ere, aurreko eskemako erakundeen jarduketa osatu edo indartzen dute maiz.

Biktimentzako erantzunaren kalitatea handiagoa izango da operadore horien arteko koordinazioa eta lankidetzaren egokia bada. Operadore horiek biktimen beharrei erantzuteko lanean ari badira uneren batean, ezinbestekoa da koordinazio ona izatea haiekin eta bideratze egokia bermatzea, operadoreen batek beste batek jarduteko beharra hautematen badu.

## 9. Jarduteko eta koordinatzeko jarraibideak

Adi, jarraibideak ezartzerakoan honakoak izan beharko dituzte kontuan eragile guztiek:

Indarkeria matxistaren biktima haur edo nerabe bat baldin bada, jarduteko prozesuetan Haurren interes Gorena hartu beharko da aintzat, bai eta adingabe eta indarkeria matxistaren biktima izateagatik duen baldintza bikoitzaren barruan bere arreta eta babeserako beharrezkoak diren neurri espezifiko guztiak ere.

Bere guraso-ahalaren, tutoretzaren edo zaintzaren pean dauden pertsonak dituen emakume helduaren kasuan, kontuan izan behar da indarkeria matxista bizi izan duten haurrak eta nerabeak prozeduretan gehitu beharko direla, eraso zuzenean jaso dutenak izan nahiz lekukoak edo bizikideak izan. Indarkeria horren biktima gisa onartuta daude legez; beraz, trataera espezifiko, indibidualizatu eta independentea jasotzeko eskubidea dute.

Adingabeak eskubideak dituzten subjektuak dira beti, eta erabakiak hartzeko prozesu guztietan sistematikoki errespetatu beharko da entzunak izateko eta haien iritzia kontuan hartzeko duten eskubidea. Beren gaitasuna eta parte-hartzea arretarako eta babeserako estrategien eta programen oinarritzko elementuak izan behar dira.

### 9.1 Jarduketa arlo sozialean

Gizarte Zerbitzuak 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, erregulatzen ditu. Araudiak ezartzen du udalak izango direla dagozkien eskumenak gauzatzeko ardura izango dutenak haien lurralde-esparruan, udal-zerbitzuen bidez. Toki, foru eta erkidego mailan dauden zerbitzuak eta prestazioak, bestalde, 2015eko urriaren 6ko 185/2015 dekretuan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan, daude xehetasunez definituta.

Elgoibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ) dira GZESren atea eta egoeraren diagnostikoa egiten dute, egoera baloratzen dute, laguntza eskaintzen dute, arreta soziala ematen dute eta, hala badagokio, beste zerbitzuetara bideratzen dute, besteak beste.

Elgoibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek (OGZ) herritarren arreta dagokion telefonoan <sup>3</sup> aurretiazko hitzorduaren bidez antolatzen dute:

#### Gizarte Larrialdia

Emakume batek gizarte-zerbitzuetara jotzen badu indarkeria matxistaren ondorioz premiazko arreta jasotzeko, berehala esku hartzeko prozesua jarriko da martxan.

Arratsaldetako, gauetako edo asteburuetakoko larrialdietako arreta, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen (OGZ) ordutegitik kanpokoak<sup>4</sup>, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Larrialdien Koordinaziorako Foru Zerbitzuarena da<sup>5</sup>. Hala, GZESk 24 orduko larrialdiak bermatzen ditu urteko 365 egunetan.

**Biktimak lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak dituenen** eta osasun-arreta behar badu, edo agerikoak ez izan arren lesioak daudela susmatzen bada, arreta eskatzen duen unean dagokion osasun-etxera joatea gomendatuko zaio. Aurretiazko baimena izanez gero<sup>6</sup>, gizarte-zerbitzuak telefonoz harremanetan jarriko dira dagokion mediku-zerbitzuarekin<sup>7</sup>, arretarako sarbidea koordinatzeko. Beharrezkoa bada, osasun-

<sup>3</sup> Ikusi II. ERANSKINA

<sup>4</sup> Ikusi II. ERANSKINA.

<sup>5</sup> Ikusi I. eta II. ERANSKINAK.

<sup>6</sup> Ikusi IV. ERANSKINA.

<sup>7</sup> Ikusi II. ERANSKINA.

zentrora lagunduko zaio biktimari eta lesioen parte ofiziala izateak zer nolako garrantzia duen azalduko zaio.

Emakumearen edo bere tutoretzapeko edo zaintzako adingabeen segurtasuna edo osotasun fisikoa arriskuan dagoela baloratuz gero, SOS-Deiak (112) zerbitzuari edo Ertzaintzaren edo Udaltzaingoaren polizia-etxeari<sup>8</sup> jakinaraziko zaio, biktima babesteko beharrezko kudeaketak (anbulantzia bat bidali, poliziaren presentzia, etab.) egiteko edo Gizarte Zerbitzura edo leku egokira joateko.

**Biktimak salaketa jartzeko nahia erakusten badu**, bide judiziala hasteko laguntza emango zaio. Unean uneko segurtasun indarrei deituko zaie, txandako pertsonalak harrera presta dezan. Biktimak salaketa Epaitegian jarri nahi badu zuzenean edo agerraldi judizialera eta/edo epaiketa azkarrera joan behar badu, eta inguruko inoren aurrez aurreko babesik ez badu, Doako Laguntza Juridikorako duen eskubidearen berri emango zaio. Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 2.h eta 6.1.II artikulua betez. Lege horrek doako laguntza juridikorako eskubidearen aplikazio-eremu pertsonala eta eduki materiala arautzen ditu, hurrenez hurren. Hainbat arrazoi direla-eta laguntza hori ezin bada eman, telefonoz koordinatuko da Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin (BLZ), epaiketara bakarrik joan ez dadin.

**Sexu-indarkeria berriki gertatu bada** (azken 240 orduetan, 10 egunetan), gertuen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura lagunduko zaio biktimari, hala nahi izanez gero. Biktimari jakinarazi behar zaio, ahal duen neurrian, ez garbitzeko eta ez aldatzeko arropa. Aho bidezko erasoak gertatu badira, ez jateko eta ez edateko, balizko frogaz ez deuseztatzen.

Osasun-sistemari abisatuko zaio dagokion prozedura aktiba dezaten eta medikua edo auzi-medikua (sistema judiziala) bertaratzeko beharrezko gestioak egin ditzaten. Biktimari uneoro eskainiko zaio osasun-zentroetara, polizia-bulegoetara edo bulego judizialekara edo beste auzialdi batzuetara joateko laguntza fisikoa eta emozionala. Laguntza hori gako da kaltetutako emakumeen, haurren eta nerabeen emozioei dagokienez babesa emateko.

Sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei Arreta Integrala Emateko Foru Zerbitzua, HARIBERRIA<sup>9</sup>, erabiliko da larrialdi sozialeko egoeretan eta krisi-egoeretan. Zerbitzu horrek epe laburreko laguntza eskaintzen du biktimen eskubide guztiak bermatzeko.

**Biktima mendekotasuna duten pertsonekin baldin badago** eta biktimak haien aldi baterako zaintzarako esleitutako inguruko pertsonak lokalizatzen ez badira, dagokien espezializatutako gizarte-zerbitzuei abisatzea komeni ote den baloratuko da.

Larrialdi-arreta fasea bukatutakoan, espediente berria irekiko da eta esku-hartze prozesua bukatu arte egongo da aktibo. Biktima dagoeneko erabiltzailea bada, larrialdi-jarduketak bere espedientean erregistratuko dira<sup>10</sup>.

---

<sup>8</sup> Ikusi II. ERANSKINA.

<sup>9</sup> Ikusi II. ERANSKINA.

<sup>10</sup> Ikusi VIII ERANSKINA.

## Prozedura arrunta

### **LEHEN ARRETA**

Lehen arretan, beren eskubideen eta dauden baliabideen berri jasoko dute. Indarkeriatik irteteko prozesua planifikatzeko eta prestatzeko laguntza eta babesa eskainiko zaie, beren errealitateari eta behar espezifikoari arreta emanda, agertoki eta ondorio posibleak aurreikusita, horretarako denbora nahikoa emanda eta erabakiak hartzeko autonomia erraztuz.

### **Emakumeak ez du hitzez adierazten indarkeria-egoera**

Indarkeria matxistaren biktima batzuk Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara (OGZ) jotzen dute indarkeriarekin zerikusirik ez duten eskaerengatik. Gizarte-langileek hautematen dute indarkeria matxista jasaten egon daitekeela, berak zuzenean eta modu argian adierazi ez arren. Kasu horietan, interesekoak izan daitezkeen eta isolamenduarekin apurtzen lagun diezaioketen baliabide sozio-komunitarioei buruzko informazioa emango zaio, kontzientzia hartzen laguntzeko (gizarte-sarea indartzeko jarduerak, Lila Etxea, Zabaltzen Sartu, Desira sexu-aholkularitza, etab.).

- Konfiantzazko harremana sortzeko, jarraipena eta egonkortasuna emateko eta arretarako ibilbidearen eta esku-hartzeen koordinazioaren koherentzia bermatzeko egingo da lan.
- Arreta pertsonalizatua eta jarraipena egiteko plana emakumearekin batera diseinatuko da eta laguntza psikologikorako, ahalduntze indibidual eta kolektiborako, hautemateko eta, emakumea prest eta ados badago, bideratzeko ekintzak barne hartuko dira.

Biktimak indarkeria hitzez adierazten ez badu eta, ondorioz, salaketarik jartzen ez badu, Gizarte Zerbitzuek aukera dute beharrezkoak iruditzen zaizkien neurriak eskatzeko Auzitegiari, arrisku-balorazioaren arabera eta biktima eta/edo bere ingurunea babesteko helburuarekin. Hala ezartzen du Genero Indarkeriaren aurka Babes Osoa Emateko neurriei buruzko 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 19.4 artikulua. Eskaera horiek Fiskaltzaren<sup>11</sup> bitartez bideratuko dira eta aipatutako zerbitzuek harengana jo beharko dute horiek gauzatzeko. Halaber, Ertzaintzari jakinaraz diezaiekete beharrezko babes-neurriak martxan jartzeko.

### **Emakumeak hitzez adierazten du indarkeria-egoera**

Emakume biktimek indarkeria hitzez adierazten badute eta laguntza eskatzen badute, elkarrizketa bat egingo zaie harrera egiteko, entzuteko, pertsona horrek gizarte-zerbitzuetara joateko zer arrazoi dituen jakiteko eta indarkeriaren egoeraren, bere beharren eta bere gaitasun sozialen hasierako balorazioa egiteko.

## **BALORAZIOA**

Emakumearen laguntza-eskaera bildu ostean, salaketa jarri nahi ala ez, bere beharrak aztertuko dira kasu bakoitzean komeni diren baliabideak eskuragarri jartzeko. Arreta jarri behar zaie emakumeak edo bere seme-alabek inguruan izan dezaketen indarkeria-moduen **adierazle anitzak hautemateari**, biktimek aipatzen dituztenetatik hasi, agerikoenak izan litezkeenak, eta naturalizatueneraino, ikusezin bilakatu direnetaraino edo gure gizartean oraindik tabu diren horietaraino, familia-eremuko sexu-indarkeria, esaterako.

Dagokion espedienteaz gain, erreferentziazko gizarte-langileak indarkeriari eta tratu txarrei buruzko **atala bete beharko du GIZARTE aplikazioan**, bai eta Elgoibarko gizarte-zerbitzuetako indarkeria matxistaren kasuen barne-erregistroa ere.

**Gizarte-zerbitzuek jarraipen esku-hartzea** egitea erabakitzen bada, diagnostiko soziala egin ahal izango dute, bere beharrei erantzuteko laguntzarik egokienak bideratzeko.

---

<sup>11</sup> Ikusi II. ERANSKINA.

Horrez gain, biktimaren ahalaren, zaintzaren edo babesaren pean dauden adingabeak ere sartu beharko dira diagnostikoaren prozesuan eta beharrezkoak diren baliabideak aktibatu beharko dira, betiere, esku-hartzeak emakume heldua zein haur eta nerabeak artatzen dituzten zerbitzuen artean koordinatzen direla bermatuz.

Emakumea adingabea bada, ezingo da interes-gatazkarik egon adingabearen eta berarekin batera ageri den helduaren artean. Halako gatazkarik balego, hirugarren pertsona edo erakunde bat identifikatu beharko da adingabearen eskubideak bermatzeko.

Erreferentziako OGZko profesionala esleituko zaio, arreta-ibilbidearen jarraitutasuna, egonkortasuna eta koherentzia eta esku-hartzeen koordinazioa bermatzeko. Gizarte-zerbitzuetako profesionalak kasuaren jarraipena egingo du prozesu osoan zehar, biktimen arretarako zerbitzu eta programekin koordinatuta, emakumeei eta haien seme-alabei laguntzeko. Hizkuntzaren mugak baldin badaude, telefono bidezko aldi bereko itzulpen-zerbitzua erabiliko da (DUALIA). Zerbitzuak hizkuntza ugari eskaintzen ditu beharra duten atzerriko pertsonentzat.

## ESKU-HARTZEA

Diagnostiko sozialak hala gomendatzen badu, Arreta Plan Pertsonalizatua (APP) diseinatuko da emakumearekin batera. Emakumeak ahalik eta parte-hartzerik handiena izan dezan sustatuko da eta bere beharretara ondoen egokitzen diren baliabideak esleituko dira. Emakumeek bakarrik ez, haur eta nerabeek ere beren APPa izan beharko dute.

Biktinek seme-alaba adingabeak baldin badituzte beren kargu, ezinbestekoa da emakumeekin eta adingabeekin egiten den esku-hartzea koordinatzea, indarkeria matxistaren egoerak bizi izan dituzten biktimak zein erasoen biktima zuzenak izan, eta esku hartzeko plan koordinatuak diseinatzea. Haien goi-mailako interesa bermatuz gero, esku-hartzea egin daiteke haiekin aitaren baimenik gabe, betiere, amaren edo haien aurkako indarkeria-egoerak egiaztatzen dituen agiriren bat baldin badago, justiziak edo dagokion autoritate administratiboak igorrita (nahiz eta salaketarik edo bikotekidea apurtzeko prozedura zibilik ez egin). Kasu horietan, aitari alde aurretik jakinaraztea nahikoa izango da<sup>12</sup>.

Biktimak proposatutako baliabideak onartzen baditu, beste zerbitzu edo sistema batzuen artean beharrezko informazioa trukatzeko eta koordinatzeko bere baimen librea, informatua eta idatzizkoa<sup>13</sup> jasoko da, bigarren biktimizazioa ekiditeko. Prozesu osoan zehar mantenduko da bigarren mailako arretarekiko koordinazioa eta, hala, arreta-mailen arteko bideratzeak erraztuko dira.

Hautemate-lanetan, prebentzioan eta laguntzan aritzen diren eragile komunitarioekin aliantzak egitea komeni da, sistemaren esku-hartzea indartzeko eta emakumeei osatze- eta ahalduntze-prozesuetan laguntza ematen zaiela bermatzeko (Lila Etxea, Zabaltzen Sartu, Desira sexu-aholkularitza...), baita GZEstik ateratzen direnean ere.

Edozein prozesu-aldaketaren faseak eta erritmoak ebaluatzea ona da emakumea bizitzen ari den unera egokitutako ekintzen proposamenak egiteko:

- **Ez du salaketa jarri nahi:** Biktimak ez badu salaketarik jarri nahi eta Babes Agindua eskatu ere ez badu egin nahi, salaketak dituen ondorio positibo eta negatiboak azalduko dizkiogu, salaketa jartzera behartu gabe.

<sup>12</sup>Haurrak eta nerabeak indarkeriatik babesteko 2021eko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa aldatzeko Kode Zibilaren 156. artikulua ezabatu egiten du zigor-salaketa edo gizarte-zerbitzu espezializatu publikoen txostena duten indarkeria matxistaren kasuetan aitari baimena eskatzeko betebeharra. Nolanahi ere, beharrezkoa da erreferentziako profesionalak egiten diren jakinarazpen-saiakera guztiak jasotzea erabiltzailearen txostenean, informatzen ahalegindu direla eta lortu ez dutela egiaztatzen.

<sup>13</sup> Ikusi IV. ERANSKINA.

Doako baliabideen berri emango diogu eta egoera bakoitzerako egokienak diren baliabideetarako sarbidea kudeatu eta koordinatuko dugu. Gizarte Langileak beharrezkoak iruditzen zaizkion larrialdi-neurriak<sup>14</sup> eska diezazkioke Epaitegiari Fiskaltzaren bitartez egindako eskaeren bidez.

Babes Agindua biktimarekin senidetze-erlazio hau duten pertsonak ere eska dezakete: ezkontideak edo emakumearekin antzeko erlazio afektiboaren bidez modu iraunkorrean lotuta dagoen edo egon den pertsonak, ezkontidearen edo bizikidearen seme-alabek, tutoretzapekoek, aurrekoek edo biktimarekin bizi diren pertsonak edo bere gurasotasun-ahala, tutoretza, zaintza edo egitatezko zaintza dutenek, betiere eskaeraren arrazoiarekin loturarik ez badute eta eskaera egiteko gaitasuna badute.

- **Salaketa jarri nahi du:** Emakumearekin batera aztertuko dira bere bizitzako hainbat alderdi: etxebizitza, harreman sozialak, diru-sarrera ekonomikoak, enplegua... Halaber, salaketa jarri ostean egon daitezkeen balizko agertokiak eta aukera posibleak eta laguntzak ere aztertuko dira.

Salaketa jarri aurretik, lehentasuna izango da emakumeari Aholkularitza Juridikoarekin edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin (BLZ)<sup>15</sup> hitzordua kudeatzeko aukera ematea.

Salaketa ahal bada Ertzaintzan jarriko da, epaitegira zuzenean bideratu beharrean, prozedura luzatzea ekiditeko edo epaitegira lehen aldiz Ertzaintzaren laguntzarik gabe ez joateko. Salaketa zehazteko, Gizarte Zerbitzuak lehenago harremanetan jarriko dira Eibarreko ertzain-etxearekin, biktimak behar duen arretarako sarbidea errazteko. Gainera, komeni da OGZko edo Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuko (GLFZ) gizarte-langilearen laguntza ere izatea.

- **Erasotzailearekin duen bizikidetzaren eten nahi du:** Bere etxebizitzan geratzen bada (erasotzailearekin partekatu gabe) edo ohiko etxebizitza uzten badu, baina harrera-pisu batera bideratzeko beharrik ez badago, gizarte-langileak kasuaren jarraipena egingo du, eta bere beharrei erantzuteko dauden baliabideak eskaini eta kudeatuko ditu.

Emakumeak premia ostatu behar badu, GLFZri edo Ertzaintzari deituko zaio biktima eraman dezaten. Emakumeak nahiago badu bere etxebizitzara gizarte-sareak edo senideek lagunduta itzuli, izan ditzakeen arriskuen berri eman behar zaio, esaterako, epaiketa azkarra izan arte eta/edo urruntze-agindua eman arte poliziaren babesa ez izateagatik, eta Udaltzaingoari horren berri eman eta harekin batera koordinatuko da, zaintza egin dezan.

- **Erasotzailearekin bizitzen jarraitzen du:** Gizarte-langileak arreta pertsonalizaturako plana diseinatuko du emakumearen laguntzarekin. Jarraipena egin eta emakumeari laguntzeko eta bere beharrei erantzuteko beharrezko baliabideak eskaini, kudeatu eta koordinatuko ditu (juridikoak, psikologikoak, ekonomikoak, soziohezitzaileak, enpleguarenak, etab.).

## **OFIZIOZKO KOMUNIKAZIOA**

Prozedura Kriminalaren Legearen (259. artikulua eta hurrengoak) arabera, profesionalek ofizioz eta lehenbailehen jakinarazi beharko dizkiete Poliziari, Epaitegiari edo Fiskaltzari delitua izan daitezkeen edo biktimarentzat edo hirugarrengoa pertsonentzat arrisku larria edo berehalakoa zein lesio larriak eragin ditzaketen emakume helduen aurkako indarkeria matxista egoerak, berehalako babes-neurriak har ditzaten. Hori guztia, indarkeria matxistaren arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko legezko

<sup>14</sup>Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 19.4 artikulua babespian.

<sup>15</sup> Ikusi I. ERANSKINA

ekintzarik ez egiteko biktimak duen eskubidea errespetatuz<sup>16</sup>.

Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko 2021eko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (15. artikulua), haur edo nerabe adingabeen aurkako indarkeria-egoeren edozein zantzu hautematen dituzten eragile guztiek Poliziari, Epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko diote eta, babesgabetasun-egoeraren bat hautematen badute, baita haurren arretan espezializatutako Gizarte Zerbitzuei ere. Dena dela, biktimei ofizioz hasten diren prozeduren berri eman behar zaie.

**BAIMENA:** beharrezkoa izango da biktimen baimen informatua<sup>17</sup> jasotzea, idatziz edo egiaztatuta geratzeko moduan, informazioa beste zerbitzu batzuetako profesionali bidaltzeko (hainbat erakunde edo sistemetakoak).

---

<sup>16</sup> Istanbulgo Hitzarmenaren 18. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzaren aldeko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 50.5. artikulua

<sup>17</sup> Ikusi IV. ERANSKINA.

## 9.2 Jarduketa osasun arloan

**Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 1997ko ekainaren 26ko 8/1997 Legea** funtsezko tresna da Euskadiko botere publikoek herritarrekiko duten konpromisoa artikulatzeko, osasunaren babesarekin eta zaintzarekin lotutako eskubidearen garapenari eta aplikazioari dagokionez.

Osasun Sailari dagokio erkidegoko pertsona guztien osasuna zaintzea eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak du helburu hori betetzeko gaitasun osoa. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzaren aldeko 4/2005 Legearen VII. Kapituluak** hau ezartzen du: “Euskadiko Osasun Sistemak osasuna babesteko eta osasun-arreta jasotzeko duten eskubide aitortua bermatuko die emakumeen aurkako indarkeria matxista motaren bat bizi izan duten biktima guztiei, haien egoera administratiboa edozein izanik ere; tartean, indarkeria-egoerak hautemango ditu eta egoeraren bilakaeraren jarraipena egingo du erabat osatu arte, bizi izandako indarkeriak eragindako sintomei edo ondorioei dagokienez”.

Horrez gain, Sistemak “ospitaleko larrialdi-zerbitzu guztietan espezializatutako langileak izateko baliabideak jarriko ditu, bortxaketen edo bestelako sexu-indarkerien biktimei mediku-azterketa eta auzi-medikuaren azterketa egokia egin diezaieten...”.

Osasun-sistema funtsezkoa da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioan eta jarduketan; izan ere, hainbat osasun-arazorengatik jotzen dute emakumeek zerbitzu horietara. Elgoibarko Osasun Zentroak astelehenetik ostiralera eskaintzen du arreta. Osasun-beharrak larrialdietako zerbitzuek bermatzen dituzte, 943 03 26 10 telefonoaren eta Etengabeko Arretarako Gunearen (EAG) bidez.

Mendaroko ospitaleak ospitaleko arreta, kanpoko kontsultena, larrialdi-zerbitzuena eta beste zerbitzu batzuen eskaintza du, eta larrialdiak 24 orduz daude.

### Prozedurak eta jarraibideak:

Biktimen zuzeneko arretan aritzen diren edozein eragilek identifikatu dezake indarkeriaren biktima bat eta jarduketa-protokolo espezifikotik definitutako prozedurak hasi beharko ditu. Jarraian, [“Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean Euskadin nola jardun jakiteko osasun-langileentzako jarduketa-gidan”](#) ezarritako jarraibide eta gomendio nagusiak atera eta laburbilduko ditugu, osasun-sistema osoarentzat eta Erakundeen arteko III. Hitzarmenerako funtsezko erreferentzia baitira.

[“Genero-indarkeriaren biktima diren seme-alaben aurrean jarduteko gida, osasun arloko profesionali zuzenduta”](#) gidak genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen arreta eta babesa indartzen du eta genero-indarkeriaren biktima izan diren seme-alaba horiek artatzen dituzten Osakidetzako profesionali jarraibideak eta jarduteko protokoloak eskaintzen dizkie.

Hauetaz gain, badituzte oso lagungarriak izan daitezke honako beste gida hauek: [“Genero indarkeriaren eta sexu erasoaren aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida”](#), [“Sexu erasoaren aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida”](#) edota [“Genero indarkeriaren aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida”](#)

Nabarmendu behar da Osakidetzako profesionalak, eskaintzen duten zerbitzua edozein dela ere, esku hartu behar dutela **kasuak hautematen** eta, beraz, indarkeria-mota horren bilaketa aktiboan. Hori lortzeko genero-ikuspegia txertatu behar dute osasun-arazoen diagnostikoan eta tratamenduan.

Osasun-sistematik igarotzen diren indarkeriaren biktimek baliteke indarkeria-egoera jasaten ari direla

esplizituki adieraztea ala ez. Hala ez bada, baliteke indarkeria-egoera jasaten ari direla agerian uzten duten zantzuak eta sintomak izatea. Kasu horietan, beharrezkoa izango da emakumeari galdetu eta ikertzea, indarkeria-egoerak baieztatu edo baztertzeko, betiere bere denborak errespetatuz.

Historia klinikoan indarkeriarik erregistratzen ez bada, jarraipen-ekintzak aktibatuko dira lehen arretatik. Indarkeriaren biktima izan diren seme-alabak ere faktore erabakigarria izan daitezke indarkeria identifikatzeko.

### Hasierako Oinarrizko Jarduketa:

Jarduteko eskemaren diseinua arretarako edozein testuingurutan kasu bat hautematen duen edozein profesionalak aplikatzeko dago egina (larrialdiak, lehen arreta, ospitaleratzeak...) eta item hauek ezartzen ditu:

1. Emakumea **ENTZUN**.
  2. **HARRERA ETA ENPATIA**.
  3. **ARRISKUEN BALORAZIOA**. Emakumearen bizitzarako eta seme-alabentzat dauden arriskuak ebaluatu. Hil ala biziko larrialdien zantzuak eta sintomak (baldin badaude), arrisku psikologikoa, egoera soziala, segurtasun-falta, isolamendua eta seme-alaben egoera (baldin baditu) artatu. Egoeraren arabera, baliabide batera edo bestera bideratuko dira:
    - Larrialdi sozialaren kasuan, gizarte-zerbitzuen arloko larrialdi sozialen zerbitzuarekin jarriko da harremanetan.
    - Arriskuan dauden adingabeen kasuan, pediatriako erreferentziatzko zerbitzuekin, familiako medikuarekin, erreferentziatzko erizainarekin, dagokion gizarte-langilearekin eta haurren gizarte-zerbitzuarekin jarriko da harremanetan, betiere amaren baimena izanez gero, salbuespen kasuetan izan ezik (abandonuaren, buru-nahastearen eta abarren adierazle esanguratsuak).
    - Emakumearen eta seme-alaben segurtasunerako beharrezkoa izanez gero, polizia-kidegoari eta zentroko segurtasun-zerbitzuei jakinaraziko zaie. Emakumearen segurtasunerako edo osotasun fisikorako arriskua baldin badago, SOS Deietara, Ertzaintzaren polizia-etxera edo Udaltzaingora deituko da.
    - Berriki izandako lesio edo sexu-erasoen kasuan, gertuen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura bideratuko da, premiazko balorazio fisiko eta psikologikoa egiteko.
    - Berriki eginak ez diren lesio edo sexu-erasoen kasuan, gertuen dagoen ospitalera bideratuko da, balorazio fisiko eta psikologikoa egiteko eta behar diren kontsultak aktibatuko dira.
  4. **JARRAIPENA ETA BIDERAKETA**. Laguntzaren jarraipena bermatuko da eta emakumea bere erreferentziatzko osasun-langileak arta dezan saiatuko gara (Lehen Arreta). Modu proaktiboan bideratu behar da, pazienteari ez zaio besterik gabe gomendatu behar bere profesionalarekin harremanetan jartzeko. Bere ohiko profesionalak egoeraren berri izateko eta dagokion esku-hartzea egiteko komunikazio-bideak ezarri behar dira.
- Era berean, emakumea beste osasun-langile batzuek ere artatzen badute eta indarkeria-egoerak arazo horrengan eragina badu (buruko osasunean, esaterako), komeni da arazoaren hedapena egitea, koordinazio eta ekintza-plan bateratuak egiteko.
5. **ERREGISTROA**. Jarduketa oro emakumearen historia klinikoan erregistratu behar da. Gidak informazio xehea ematen du kasua nola erregistratu jakiteko. Erregistro honek laguntzaren jarraipena eta eremu desberdinetako profesionalen koordinazioa ahalbidetzen du, emakumeari edo instantzia judizialei

informazioa ematen die, benetako prebalentzia ezagutzeko aukera ematen du, etab.<sup>18</sup> Modu ulergarrian informatuko zaio zer datu jasoko diren, zertarako, nola gordeko diren eta nor arduratuko den horiek behar bezala erabiltzeaz. Datuak jakinarazteak zer onura dakartzan informatuko zaie eta ez egiteak zer ondorio izan ditzakeen, baita zuzentzeko eta bertan behera uzteko duten eskubideaz ere. Gainera, datuak konfidentzialak izango direla eta datuak jasotzeko xedearekin lotura dutenek soilik erabiliko dituztela jakinaraziko zaie. Datu horiek beste zerbitzu batzuei (beste erakunde edo sistema batzuetakoak) lagatzea aurreikusten bada, horren berri izan beharko du pertsonak eta horretarako baimena emateko<sup>19</sup> edo ez emateko aukera eman beharko zaio. Baimen hori idatziz edo egiaztatuta geratzeko moduan jaso beharko da.

6. **KOMUNIKAZIO JUDIZIALA.** Lesio fisikoak edo psikikoak badaude laguntzeaz arduratuko den profesionalak dagokion lesioen parteen eredia bete beharko du, eta emakumeari jakinarazi. Halaber, kopia bat epaitegira bidali beharko du, baldintza hauek kontuan hartuta:

- Betiere emakumeak eskatu edo onartu badu. Arrisku altua ez badago, emakumeak erabilgarria eta ona dela uste duenean bidaliko da, bere etorkizunari buruzko alderdi zehatzei buruzko erabakiak hartzen ari denean.
- Emakumeak edo hirugarrenen indarkeriaren gertakari larriak jasateko arrisku altua eta gertuko dagoela baloratzen denean edo Prozedura Kriminalaren Legearen arabera indarkeria-gertaera larria bizi duenean.<sup>20</sup>

Hori guztia, indarkeria matxistaren arretarako eta babeserako prestazio publikoen onuradun izateko legezko ekintzarik ez egiteko biktimak duen eskubidea errespetatuz.

Horrez gain, haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko 2021eko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (15. artikulua), haur edo nerabe adingabeen aurkako indarkeria-egoeren edozein zantzu hautematen dituzten eragile guztiek Poliziari, Epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko diote eta, babesgabetasun-egoeraren bat hautematen badute, baita haurren arretan espezializatutako Gizarte Zerbitzuei ere. Dena dela, biktimei ofizioz hasten diren prozeduren berri eman behar zaie. Garrantzitsua da azaltzea gizarte-zerbitzuei jakinaraztea ez dela salaketa jartzea eta, hortaz, ez duela prozedura judizialik eta urruntze-agindurik aktibatuko<sup>21</sup>.

7. **ALTA TXOSTENA:** kasua larrialdietan, ospitalean, larrialdiko etxeko arretan, etxeko ospitalizazioan edo larrialdi zerbitzuetan hauteman bada, oinarrizko hasierako jarduketa bukatutakoan alta-txostena emango da.
8. **JARRAIPENA ETA BIDERAKETA:** laguntzaren jarraipena ziurtatu behar da emakumea bere erreferentziatzko osasun-profesionalak artatzen jarrai dezan, laguntzeko esku-hartze eta jarraipen pausatu eta planifikatua egin ahal izateko. Horretarako, pazienteari ohiko profesionalarekin kontaktuan jartzeko gomendatuko zaio eta, era berean, ohiko profesionalak egoeraren berri izateko eta dagokion esku-hartzea egiteko komunikazio-bideak ezarriko dira. Kasua hauteman duena erreferentziatzko profesionala bada, laguntzarako esku-hartzerako hitzordua finkatuko da jarraipena egiteko.

### Laguntzeko eta jarraipena egiteko jarduketa

- **EBALUAZIOA** Oinarrizko hasierako kontsultan egindakoa berrartuko da, lortutakoa indartu eta erronka

<sup>18</sup> Genero-indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean jarduteko osasun-langileentzako jarduketa-gidak <https://www.euskadi.eus/guia-de-actuacion-ante-la-violencia-de-genero-y-las-agresiones-sexuales-en-euskadi/web01-a2inform/es/>, erregistroaren eta kodifikazioaren eta konfidentzialtasunaren modu egokiari buruzko informazio zehatza eskaintzen du.

<sup>19</sup> Puntu horri buruzko xehetasun gehiago izateko, Emakundek 2015ean egin zuen "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnen datu pertsonalen tratamendurako gida" lanaren 2022ko azken eguneraketa eta protokolo honen IV. ERANSKINA kontsulta daitezke.

<sup>20</sup> Prozedura Kriminalaren Legea (259. artikulua eta hurrengoak)

<sup>21</sup> Xehetasun gehiago: [Genero-indarkeriaren biktima diren seme-alaben aurrean jarduteko gida, osasun arloko profesionaleri zuzenduta](#). Osakidetza (2024).

berriak jorratzeko.

- ENTZUTEA garrantzitsua da jasandako indarkeria-motak eta bizi duen indarkeria-zikloaren unea zehaztea. Finkatuko den ekintza-planean eragin dezaketeko gakoak:
- HARRERA: Egoerari berriz ekitea ARRISKUAK berriro ebaluatzeko: fisikoak, emozionalak eta sozialak. Premiazko egoerak jorratzea eta etorkizunean etor daitezkeen beste arrisku batzuk prebenitzea ahalbidetzen duen azterketa xehea egitea.
- Emakumeak dituen LAGUNTZAK eta aukerak ebaluatzea.
- OSASUNEKO BARNE KOORDINAZIOA: Seme-alabak erasotzailearen indarkeriaren zuzeneko biktimak dira, erasoek lekukoak izan direlako edo zuzenean indarkeriaren ondorioak pairatu dituztelako. Kasu gehienetan, seme-alabak gure osasun-sistemako pediatriako langileek artatzen dituzte. Koordinazioak baliabide guztien esku-hartzeak ildo berean indartzen laguntzen du. Emakume biktima askok denbora daramate buru-osasuneko unitateen artaren pean. Batzuetan indarkeria-egoerak sortutako diagnostikoak dituzte.  
Emakumea beste baliabide edo profesional batzuek artatzen badute eta indarkeria-egoerak arretan eragina izan dezakeela susmatzen badugu, jakinarazi egingo dugu eta koordinaziorako eta elkarlanerako mekanismoak ezarriko dira<sup>22</sup>.
- KANPOKO KOORDINAZIO SOZIOSANITARIOA
- ERREGISTROA. Jarduketa guztiak erregistratu egingo dira.

Indarkeria matxistaren biktimak ez badu gertaera salatu nahi eta Babes Agindua eskatu nahi, jakinaraziko zaio salaketa eskubidea izateaz gain, jasaten ari den indarkeria-erlazioa hausteko eta, egokia izanez gero, Justiziako Administrazioaren babes-mekanismoa (erasotzailearen urruntzea, babes poliziala, aitak seme-alabarekiko dituen eskubideak etetea, etxebizitzaren erabilera, elikagaien pentsioa, etab.) erabiltzeko, beharrezkoa dela haren laguntza.

Edozein **ALDAKETA-PROZESUK faseak eta erritmoak ditu** eta ebaluatzea ona da emakumea bizitzen ari den unera egokitutako ekintzen proposamenak egiteko.

**EMAKUMEAK EZ DU AITORTZEN INDARKERIA ARAZOA DENIK:** Helburua tratu txarrak onartzearen inguruko zalantza sustatzea izango da. Arazo handia dela ikusteko kontzientzia handitzea eta onarpena txikitzea.

Egoeraren arabera, muturreko indarkeria-kasu baten aurrean har daitezkeen neurri batzuk aztertuko dira: erreferentziazko pertsonak izatea, premiazko laguntza eskatzeko telefono-zenbakiak eta erakundeak ezagutzea edo adingabeak babesteko moduak jakitea.

**EMAKUMEA OHARTZEN HASI DA ABUSU-ERLAZIOA DAGOELA:** Kontzientzia hartzea areagotu eta aldatetako egitearen inguruko ziurgabetasuna bideratzea da helburua. Indarkeria matxistako egoerarako baliabide egokiak dituzten eragile sozial eta instituzionalekin koordinazioak eta kontaktuak ezarriko dira, batez ere gizarte-zerbitzuekin eta/edo Udaleko Berdintasun Sailarekin. Emakumeari aukerak iradokitzea ahalbidetu eta aldatetako errazten duen sareak babesten duela setiarazi behar zaio.

Mediku-tratamendu orokor edo espezializatu bat egin bitartean emakumeak aitortzen badu iraganeko sexu-indarkeria bizi izan duela, sexu-osasunerako arreta-zerbitzura eta psikologiako zerbitzu espezializatuera bideratuko da lehentasunarekin.

Horrez gain, Udaleko Gizarte Zerbitzuetara bideratzeko proposamena egingo zaio, osatzen laguntzeko beste udal baliabideren bat eta/edo foru-baliabideren bat eskaintzeko. Biktimak onartuz gero, osasun- eta gizarte-

---

<sup>22</sup> Aukerarik egokienaren bitartez egingo da; HITZORDU ADMINISTRATIBO bat izan daiteke, oharretan adieraz daiteke profesionalen artean telefono bidezko arreta beharrezkoa dela edo historia klinikoa elkarrekin berrikustea izan daiteke. Genero-indarkeriaren egoera lehen arretatik kanpo hautematen denean, profesionalen arteko komunikazioa AURREZ AURREKOA EZ DEN KONTSULTA baten bidez egin daiteke Lehen Mailako Arretarekin.

zerbitzuak koordinatu egingo dira. Biktimak onartzen ez badu, jarraipena osasun-zerbitzuetatik egingo da, eta argi utziko zaio esku-hartze prozesuaren edozein unetan bideratu daitekeela kasua beste zerbitzuetara.

Emakumearekin batera segurtasun- eta ihes-plana egingo da, arrisku-egoeraren bat sortzen bada gauzatzeko: Telefono-mugikorra izatea eta polizien, biktimen elkarteetan, senideen edo konfiantzako pertsonen zenbakia gordeta izatea. Gertuko pertsona horiek jakin behar dute emakumearen dei batek arriskuan dagoela esan dezakeela.

Iheserako plana izatea; alde zuzenetik prest izatea dokumentazioa, arropa, etxeko giltzak, mediku-txostenak, medikamentuak eta, baldin badaude, aurreko salaketak. Dirua eta kreditu-txartelak.

Seme-alabak baditu, ihes egiteko behar duten guztia prest izatea edo etxetik ateratzera behartzen dituen alarma-egoerak ezartzea haiekin.

**EMAKUMEAK EGOERA ALDATU NAHI DU:** Helburua emakumeari laguntzea da, aldaketa batzuk egin ahal izateko ahalik eta planik onena zehazteko. Aurreko fasean bezala, gizarte-zerbitzuetara, Lila Etxera edo beste baliabide espezifiko batzuetara sartzeko koordinazioa eta kudeaketa, bai eta segurtasunerako eta iheserako plana ere, emakumearekin baloratu behar dira, sor daitekeen indarkeria dela eta.

**EMAKUMEAK EGOERA ALDATZEKO EKINTZAK EGIN DITU:** Fase honen helburua emakumeari aldaketarako ekintzetan laguntzea da, bakarrik senti ez dadin eta prozesua berretsi dezan. Une horretan arreta berezia jarri beharko da emakumearen eta bere seme-alaben segurtasunean eta babesean; izan ere, ekintza-fasean sor daiteke bereiziki indarkeria.

**EMAKUMEAK INDARKERIA-EGOERAREKIN AMAITU DU:** Hasitako ekintzak mantentzen laguntzea da helburua, berriz erortzea ekiditeko estrategiak identifikatzea eta arriskuaren zaintzari eustea. Maila pertsonalean, familiarrean, sozialean, ekonomikoan eta lanekoan berreraikitze prozesurako baliabide egokietarako sarbidea koordinatuko da. Bizitza sozial normala egitea estimulatuko da egoera bakoitzaren barruan ahal den heinean, eta bizitza osasungarriaren alderdi guztien balioa nabarmenduko da. Emakumeen taldeak eta komunitateko beste baliabide batzuk oso erabilgarriak izan daitezke isolamendua ekiditeko eta indarkeriarik gabeko bizitzarako borondatea indartzeko.

#### **Sexu-indarkeria kasu berrien (azken 240 orduetan gertatutakoa) aurrean jardutea:**

Emakumea edozein arreta-testuingurutatik sartzan bada edo bertan jarraitzen badu (Larrialdi Zerbitzua, ziurrenik), eraso jasan duen emakumea itxarongelan ez egotea lortuko da, eta konfiantzako pertsona batek laguntzea erraztuko da. Ez garbitzeko eta arropa ez aldatzeko esango diogu, baita ez jateko edo ez edateko ere felazioa izan bada, ahal den heinean.

Gertuen dagoen **ospitalera** bidaliko da lehenbailehen eta ez garbitzeko eta arropa ez aldatzeko esango zaio, baita ez jateko edo ez edateko ere felazioa izan bada, ahal den heinean.

Kontuan izan beharrekoa: sexu-erasoen aurrean jarduteko ezinbestekoa da ospitaleak koordinazio ona izatea guardiako epaitegiarekin.

- **EMAKUMEA SALAKETA JARRI ONDOREN JOAN DA OSPITALERA:** Ospitaleak guardiako epaitegiari eman behar dio egoeraren berri, eta baimen judiziala izan ondoren, auzi-medikuak artatuko du pazienteak guardiako ginekologoarekin batera. Salaketarik ez dagoenean eta biktimak delitua ospitalearen bidez salatze nahi adierazten duenean, polizia-kidegoari jakinaraziko zaio. Beharra balego, deklarazioa ospitalean bertan hartu ahal izango du (era berean, beharrezkoak diren beste baliabide edo zerbitzu batzuk ere aktibatuko dira, Ofizioko Txanda, etab.)

- EMAKUMEA SALAKETA JARRI GABE JOAN DA OSPITALERA: Biktimari jakinaraziko zaio osasun-langileak legez derrigortuta daudela halako gertakariak **epaitegiari jakinaraztera**. Ospitaleko medikuak artatu egingo du eta auzi-medikuak delitua ikertu (lesio-motak, lagin biologikoak eta biologikoak ez direnak jaso, etab.).

Ospitaleak berehala jakinarazi beharko dio gertakaria guardiako epaitegiari, emakumeak salaketa jarri nahi duen ala ez gorabehera. Gainera, emakumeak delitua salatu nahi badu, Ertzaintzari ere jakinaraziko zaio, eta Ertzaintzak lege-laguntzarako ofiziozko txandan dagoen Abokatuen Elkargoari.

Nolanahi ere, biktimari jarduketa azalduko zaio, ahal den heinean, eta baimena eskatu.

- Laguntzeko jarduketa eta dagokion tratamendua. Erasoaren ostean emakumeak izango dituen inpaktu psikikoak ahalik eta gehien murrizteko, ginekologoaren eta auzi-medikuaren ebaluazioa batera egingo dira, eta errekonozimendua aldi berean eta koordinatuta egingo da.
- Ginekologoak txosten klinikoak egingo du, epaitegirako auzi-medikuaren txostena, aldiz, auzi-medikuak. Urrats honetan, balizko lesio fisikoak eta psikikoak artatuko dira eta beharrezko proba guztiak egingo dira, interes legala izan dezaketen laginak hartzea barne. Ginekologoak txosten klinikoak egingo du, epaitegirako auzi-medikuaren txostena, aldiz, auzi-medikuak (dagokionean).
- Lesioen parte bat betetzea eta biktimari irakurtzea.
- Lesioen parte ahalik eta azkarren igortzea Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Epaitegira edo Guardiako Epaitegira.
- Lesioen partearen kopia eta epaitegira igorritako idatziarena biktimari ematea, horrek bere segurtasun pertsonala arriskuan jartzen ez badu. Kasu horretan konfiantzako pertsona baten izena eskatuko zaio jasotzeko.
- Lesioen parteak eta igorritako idatzia biktimaren historia klinikoan sartzea.
- Laguntzeko lehen jarduketa Larrialdi Zerbitzuetatik edo Espezializatutako Arretatik egin bada, biktimari mediku-txostena ere emango zaio, aurrerantzean artatuko duen medikuak jarraipen egokia egin ahal izateko.

Biktimari neurri sozialen eta babes-neurrien berri emango zaio osasun-zentroko baliabideetatik edo Elgoibarko gizarte-zerbitzuetako profesionalekin harremanetan jarriko da.

Alta emateak eta ospitalean kasua ixteak ez du esan nahi lehen arretatik emakumea artatzeari utziko zaionik. Gainera, beharrezkoa den beste edozein baliabidetara bideratu daiteke emakumea.

**Berriki gertatu ez den sexu-eraso baten aurrean jardutea (240 ordu baino gehiago)** edo ageriko lesio fisiko edo psikikoen aurrean.

Biktima batek osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu edo egin berriak ez diren eraso sexualak pairatu baditu, osasun-zentroan edo ospitale-larrialdi zerbitzuan artatuko dute, hala badagokio.

Berriki gertatu ez den sexu-erasoaren edo ageriko lesio fisikoak edo psikikoak dituen pazientearen balorazioan ez da beharrezkoa izango pazientea ospitalera bideratzea. Horrelako kasuetan pazientearen balorazioa ospitaleetan egin beharko da sexu-eraso berriki gauzatu bada (240 ordu baino gutxiago) eta ospitaleetan edo osasun-zentroetan eraso ez bada berriki egin (240 ordu baino gehiago).

Biktimari jarduketa azalduko zaio, ahal den heinean, eta baimena eskatu.

- Laguntzeko jarduketa eta balizko kalte fisiko eta/edo psikikoei dagokien tratamendua. Jarduketa-planarekin hasteko dagokion diagnostikoa/jarduketa-terapeutikoa egingo da: serologiak eskatu, sexu-transmisio bidezko infekzioak baztertu, hepatitis Baren aurkako txertoa...

- Lesioen partea betetzea eta biktimari irakurtzea.
- Emakumea salaketa jartzera animatuko dugu, polizian, fiskaltzan edo guardiako epaitegian. Emakumearen segurtasunerako edo osotasun fisikorako arriskua baldin badago, SOS Deietara, Ertzaintzaren polizia-etxera edo Udaltzaingora deituko da.
- Biktimari jakinaraziko zaio osasun-langileak legez derrigortuta daudela halako gertakariak **epaitegiari jakinaraztera**. Lesioen partea ahalik eta azkarren igortzea Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Epaitegira edo Guardiako Epaitegira.
- Lesioen partearen kopia eta epaitegira igorritako idatziarena biktimari ematea, horrek bere segurtasun pertsonala arriskuan jartzen ez badu. Kasu horretan konfiantzako pertsona baten izena eskatuko zaio jasotzeko.
- Lesioen parteak eta igorritako idatzia biktimaren historia klinikoan sartzea.
- Laguntzeko lehen jarduketa Larrialdi Zerbitzuetatik edo Espezializatutako Arretatik egin bada, biktimari mediku-txostena ere emango zaio, bere erreferentziazko medikuak jarraipen egokia egin ahal izateko. Medikuekin kontaktatu eta koordinatu beharko da, biktima bideratzeko eta beharrezkoa den jarraipenerako arretara sartzeko.
- Biktimari neurri sozialen eta babesleen berri emango zaio osasun-zentroko baliabideen bidez, edo Gizarte Zerbitzuetako profesionalekin koordinatu eta kudeatuko da premiazko kontaktua.

**BAIMENA:** beharrezkoa izango da biktimen baimen informatua<sup>23</sup> jasotzea, idatziz edo egiaztatuta geratzeko moduan, informazioa beste zerbitzu batzuetako profesionalei bidaltzeko (hainbat erakunde edo sistemetakoak).

Laburbilduz<sup>24</sup>, lesioen parte igortzeko baldintza hauek izango dira kontuan:

- Betiere emakumeak eskatu edo baimentzen badu.
- Emakumeak indarkeriaren gertakari larriak jasateko arrisku altua eta gertukoa dagoela baloratuz gero, nahiz eta berak nahi ez izan.
- Arrisku altua ez badago, emakumeak erabilgarria eta ona dela uste duenean bidaliko da. Hau da, osatze-prozesu pertsonalean dagoenean, bere etorkizuneko alderdi batzuen inguruko erabakiak hartu dituen eta bere bizitzako egoera aldatzen hasteko estrategia prest duenean<sup>25</sup>.

<sup>23</sup> Ikusi IV. ERANSKINA.

<sup>24</sup> Genero indarkeriaren eta sexu erasoaren aurrean Euskadin nola jardun jakiteko gida (2019).

<sup>25</sup> Ikusi VIII. ERANSKINA.

### 9.3 Poliziaren arloko jarduketa

Euskadiko polizia-kidegoa Ertzaintzak eta Udaltzaingoak osatzen dute eta Euskadiko Segurtasun Publikorako Sistema Arautzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak eta Euskadiko Polizia Legea bosgarrenez moldatzeko ekainaren 27ko 7/2019 Legeak arautzen dute. Tokiko erregimenaren oinarrien lege arautzaileak 25. artikuluan ezartzen ditu udalerrien eskumenak, eta horietan udaltzaingoak zeregin nabarmena du.

Euskadiko Segurtasun Publikorako Sistemak, segurtasun publikoan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak eta udalerriek Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren jarduketa koordinatu eta bateratua errazten dute, haien eskumenen arloan eta bakoitzaren gaitasunen barruan sortzen diren arazoak modu eraginkorragoan jorratzeko<sup>26</sup>.

#### 9.3.1 Ertzaintza

Ertzaintzak Eibarko Ertzaintxean artatu eta erantzuten die herritarrei eta 24 orduko zerbitzua eskaintzen du. Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren (EI/GI) jarduketa-prozedurak zehaztuta ditu 2002tik, Segurtasuneko Sailburuordetzatik igortzen diren derrigorrezko jarraibideen bidez.

Nabarmendu behar da bere eskumenen esparruan emakumeen aurkako edozein indarkeria matxista motari erantzuten diola.

Oro har, Ertzaintza izango da indarkeria matxistaren kasuen eskumena hartuko duena. Edozein bidetatik jakin dituen kasuak hartuko ditu. Edonola ere, polizia-kidego guztien konpetentziak dira larrialdiei arreta emateko eta biktimak babesteko zereginak. Hala, sinatutako koordinazio-protokoloak aintzat hartuta, Udaltzaingoak Ertzaintzak behar dituen babes-eskaerak artatuko ditu.

Ertzaintzak ez ditu arreta poliziala eta babes poliziala bereizten, eta babes aktiboa eskaintzen die biktimen % 100i. Halaber, **guztiak aplikazio informatiko batean erregistratzen ditu, EBA espedientearen barruan**. Une horretatik aurrera, biktimarekin arrisku-maila edozein dela ere, eta epaitegian hartutako ebazpena gorabehera, poliziak babesa eskaintzen du.

Arriskuaren balorazioa etengabea da, eta garapenak Ertzaintzaren ereduari eta polizia-egiturari erantzuten dio. Hala, larrialdietako lehen arreta eta biktimen oinarriko prebentziorako lanak herritarren babeserako ohiko zerbitzuek egiten dituzte, beste batzuk berriz, hala nola kasuen koordinazioa, arreta iraunkor eta pertsonalizatua, arriskuaren balorazioa eta larrialdietarako neurrientzat ezarritako babes-neurriak polizia-etxe guztietan dauden talde espezifikoei egiten dituzte.

**Ertzaintzak, lehenik, sor litezkeen jarrera oldarkorrek saihesten dituzten hautemate- eta prebentzio-jarduketan** alde egiten du. Gertatuz gero, prebentzio-, salaketa-, ikerketa- eta atestatu-diligentziak egiten ditu eta larrialdiko laguntza eskaintzen die biktimei; jarduketak egiten dituzte menpekotasunen bat duten pertsonekin, baita erasotzailearekin ere; hasierako arriskuaren balorazioa; babes-neurrien definizioa eta jarraipena; Bortxa APP deskargatzeko eskaintza edo arrisku-maila handiena duten kasuetan, biktimaren telefonoan aplikazioa instalatu ezin bada, telefono bat eskainiko zaio; biktimarentzako autobabeserako prestakuntza; Berdintasun Sailarekin, gizarte-zerbitzuekin, Udaltzaingoarekin eta Epaitegiaren komunikazioarekin koordinazioa.

---

<sup>26</sup> Ikusi VIII. ERANSKINA.

Indarkeria-egoeretakako **sarbideak**.

- Larrialdietako abisuak.
- Hirugarren pertsonen edo biktimaren deiak.
- Emakumea polizia-etxera joaten da salaketa jartzera.
- Udaltzaingoak igorrita.
- Lesioen parte jaso duen epaitegiak bidalita. Osakidetza.
- Udaleko berdintasun-sailak igorrita.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek (OGZ) igorrita.
- Epaitegiak Babes Agindua igorrita.
- Beste polizia batzuek igorrita (biktima etxez aldatu delako).

Delitua izan litekeen emakumeen kontrako indarkeria matxistaren egoera baten presentziaren edo susmoaren aurrean, EAeko polizia-kidegoetako pertsonalak hurrengo prozedurak eta argibide orokorrak jarraituko ditu, larrialdiko egoerak (berehalako esku-hartzea eskatzen duten kasuetan) eta berehalako esku-hartzea behar ez duen egoerak bereizita (arreta arrunta).

### Larria (berehalako esku-hartzea)

Euskadiko Poliziaren zerbitzuetarako sarbidea sarritan telefono bidezkoa da, nahiz eta Udaltzaingoan edo Ertzaintzan aurrez aurre ere egin daitekeen. Biktimak berak, familiako kideren batek, bere sare sozialeko pertsonaren batek edo beste zerbitzuetako eta sistemetako profesionalek kontakta dezake zuzenean.

Lehenengo kontaktua dei bidezkoa denean, eta artatzen duten pertsonak delitua izan daitekeen indarkeria matxistaren gertakari bat dela hautematen dutenean, egiaztatu eta dokumentatu egingo da. Une horretan deia egiten duen pertsonari honi buruzko jarraibideak emango zaizkio: egon daitezkeen objektu arriskutsuak; adingabeak (edo menpekotasunen bat eta/edo desgaitasunen bat duten beste pertsona batzuk) egongo balira, babesteko jarduketak; informatu duen pertsona patruilarekin zein tokitan elkartzeko den.

**Intzidentziaren lehenengo komunikazioa jasotzen duen** polizia-kidegoak aurkeztutako pertsona EBAn (etxeko indarkeria eta genero-indarkeria delituengatik txostenen kudeaketa partekatutako sistema) bilduta dagoena kontuan izanda artatuko du, azkeneko arrisku-balorazioa erreferentzia gisa hartzeko.

Biktimak hala eskatzen badu edo beste pertsona edo erakunde batzuen salaketa baldin badago, polizia biktimaren etxera edo biktima dagoen tokira joango da eta beharrezkoa den denbora guztian geratuko da **jazoera neutralizatzeko eta biktimari edo biktimei laguntzeko (arreta berezia jarri behar da haur eta nerabeengan)**.

Biktimak osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu, edo ikusi ez arren susmoak baditugu, telefonoz harremanetan jarriko gara **dagokion larrialdi-zerbitzuarekin edo osasun-larrialdiarekin**, dagokion arreta koordinatzeko. Abisua emango zaie prest egon daitezkeen eta medikua edo auzi-medikua bertaratzeko beharrezko gestioak egin ditzaten. Emakumeari lesioen agiri ofiziala eskatzeak duen garrantzia nabarmenduko zaio, salaketa jartzen badu aurkeztu ahal izateko.

**Sexu-indarkeria egin berria (azken 240 orduetan gertatua)** bada, eta biktimak arriskua duenean, hurbilen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura lagunduko da. Arriskurik egon ezean, laguntza psikosoziala eskainiko zaio, herriko gizarte-zerbitzuekin koordinatuta kudeatuko da. Edonola ere, Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuari (Mendaroko Ospitaleko Larrialdi Ginekologikoak) jakinaraziko zaio prozedura aktibatzeke eta auzi-medikua etor dadin beharrezko kudeaketak egin ditzaten.

Biktimari jakinaraziko zaio ez dituela eskuak garbitu eta arropak aldatu behar, ezta ezer jan edo edan ere aho-bidezko erasoak egon badira. Polizia-taldea aurretiaz koordinatuko da ospitalean hartzeko, bai eta ospitalean medikua edo auzi-medikua egon dadin eskatzeko ere, mediku-azterketa egin eta laginak hartu ahal izateko.

Biktimari ez zaio aitorpena hartuko osasun-langileek azterketa egin arte eta bere behar pertsonalei erantzun arte. Ustezko erasotzailea bide judizialek zigortzeko salaketa jartzeak duen garrantziaren berri emango zaio.

**Biktimaren zaintzapean adingabeak edo menpekotasunen bat duten pertsonak** badaude: biktimak seme-alaba adingabeak edo menpekotasunen bat duten pertsonak baditu ondoan, inguruko konfiantzazko pertsonak identifikatzen saiatuko da (biktimak hautatutakoak) behin-behinean menpekotasuna duten pertsonen zaintza bere gain har dezan, amaren aitortzak eta kontakizunak bizitzeak ekar dezakeen bigarren biktimizazioa ekiditeko. Zaurgarritasun-egoera detektatuz gero, dagozkien gizarte-zerbitzuei jakinaraztea baloratuko da, beren arretarako eta babeserako neurri aproposak har ditzaten.

**Indarkeria matxista jasandako haurrak eta nerabeak gehitu beharko dira atestatuan;** izan ere, indarkeria horren biktima gisa onartuta daude legez; beraz, trataera espezifikoa, indibidualizatua eta independentea jasotzeko eskubidea dute.

**Arreta psiko-soziala balioetsiko da eta biktimari Elgoibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko zaio** edo, zerbitzu horren ordutegi arruntetik kanpo bada, Larrialdietako Gizarte Zerbitzuekin jartzeko, profesionalak bertara daitezten, lagun diezaioten, emozioen atxikipenean lagun diezaioten eta, behar balitz, berehalako harrera-baliabidera sartzea kudea dezaten. Biktimak ezetza adierazi ezean, ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie aipatutako zerbitzuei.

Biktimak segurtasuna arriskuan ikusten badu edo hori eskatzen badu, bera eta bere tutoretza edo zaintza pean dauden adingabeak emakumeak proposatutako beste etxe edo toki batera eramango dira (senideen etxea, lagunena, etab.). Biktimaren segurtasuna arriskuan dagoenean, polizia-agenteeek bere eta bere zaintzan dauden seme-alaba adingabeen edo menpekotasuna duten beste pertsona batzuen harrera-egoitzarainoko lekualdatzea kudeatuko dute, beren segurtasuna bermatuta. Halaber, beharrezkoa baldin bada, biktimari etxera lagunduko zaio arropa eta beharrezko beste objektuak hartzeko.

Biktima larrialdietako mediku-zerbitzura, gizarte-zerbitzuetara, etxera edo beste norabait eraman behar bada, ahal den heinean, bereizgarririk gabeko ibilgailu ofizialean eramango da.

Bai biktimarentzako arretan, bai balizko lekualdatzeetan, polizia-taldean gutxienez emakume bat egon dadin ahaleginduko da.

### **Ikerketa eta atestatua egitea**

Poliziak dakizkien eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarekin erlazionatutako arau-hausteak<sup>27</sup> diren gertakari guztiek atestatua irekitzea ekarriko dute. Bikotekideak edo bikotekide ohiak edo familiakoren batek eragindako indarkeria matxistaren kasuetan gainera, EBA espedientea irekiko da.

Ikerketetan eta prozesu osoan zehar bi giltzarri daude: biktimaren behar medikoak eta psiko-sozialak, eta biktimak eta lekukoek emandako informazio adierazgarria eta frogak biltzea. Biktimaren eta bere seme-alaben edo familiako kideen segurtasuna bermatzeko berehalako kudeaketak egiteko eta, behar balitz, erasotzailea atxilotzeko aukera ematen duten datuei buruz ere galdetuko da.

Garrantzitsua da gogoan izatea indarkeria matxista jasandako haur eta nerabeak legez daudela biktimatzat

---

<sup>27</sup> Sexu-askatasunaren aurkako delituak delitu erdipublikoak dira.

hartuta; hortaz, atestatuan txertatu behar dira bere seme-alabak izan ala ez eta berarekin bizi ala ez biktimaren zaintza peko adingabeak badira. Haurren jokabidearen inguruko informazioa jaso behar du atestatuak, baita indarkeriaren biktima/testigu izan diren argitzen duen informazioa ere. Izan ere, larrigarria izateaz gain, erabakigarria izan daiteke babes, eta haur eta nerabeentzako gizarte-zerbitzu espezializatuen arreta jasotzea.

Desgaitasuna duten biktimen atestatuko ikerketa eta salaketa egiterakoan, beharrezkoa da indarkeria pasiboa ere kontuan izatea, esaterako, abandonu fisikoak, gehiegizko medikamentuak edo medikamentu desegokiak ematea eta abandonu emozionala.

Ahalik eta azkarren eta zehatzen egingo dira arau-haustea egon dela eta egilea erantzulea dela egiaztatzeko beharrezkoak diren uneko egiaztaketak eta ikerketa: begietako ikuskapena, lekukoak, biktimari argazkiak ateratzea bere baimenarekin, etab. Biktimari ikertutako gertakariekin erlazionaturiko objektuak eta elementuak eramatea kasua argitzeko garrantzitsua dela informatuko zaio.

Atestatuan epaitegiari jakinarazteko beharrezko informazio guztia erantsiko da: aurrekariak, begizko ikuskapenen diligentziak, babes-aginduaren eskaera, egoeraren arriskuaren balorazioaren diligentzia, aitorpenak, etab.

**Arreta psikosoziala balioetsiko da eta biktimari Elgoibarko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko zaio** edo, zerbitzu horren ordutegi arruntetik kanpo bada, Larrialdietako Gizarte Zerbitzuekin jartzeko, profesionalak bertara daitezten, lagun diezaioten, emozioen atxikipenean lagun diezaioten eta, behar balitz, berehalako harrera-baliabidera sartzea kudea dezaten. **Biktimak ezetza adierazi ezean, ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie aipatutako zerbitzuei.**

Ikerketaren eta atestatua egin ondoren, baita biktima adindunak salaketa jarri gabe ere, polizia-agenteeek Prozedura Kriminalaren Legearen (259 artikulua eta hurrengoak) arabera, Epaitegiari edo Fiskaltzari **ofizioz eman beharko diote** dakizkiten eta delitu izan daitezkeen edo biktimentzat edo hirugarren pertsonentzat arrisku larria edo lesio larriak ekar ditzaketen emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egoeren berri.

Haur eta nerabeei eragindako indarkeria-egoera baten zantzuak ikusten dituztenean, Epaitegiari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko diote eta balizko babesgabetze kasu bat identifikatuz gero, gizarte-zerbitzuei.

Dena dela, biktimei ofizioz hasten diren prozeduren berri eman behar zaie.

Biktimak salaketa jartzeko lege-aholkularitza jasotzeko nahia adierazten badu, dagokion Abokatu Elkargoaren Ofiziozko Txanda espezializatua aktibatuzko beharrezko kudeaketak egingo dira polizia-bulegoetatik eta abokatuak polizia-etxera iristeko behar duen gutxi gorabeherako denboraren berri emango zaio. Abokatuaren laguntza aurrez aurrekoa izango da eta polizia-etxean izango da<sup>28</sup>. Abokatuak honako hauek eskainiko dizkio biktimari: aurrez aurreko aholkularitza, abokatuaren laguntza salaketa egiten den bitartean, eskaeran eta, hala badagokio, babes-agindua hartzeko agerraldian, baita epaiketa azkarrean ere.

### Salaketa jasotzea

Lehenik, ahal den neurrian, aurkeztutakoari emakumezko agente batek artatzea eskainiko zaio eta konfiantzazko pertsona batek laguntzeko duen eskubidearen berri emango zaio. Adingabeak beti egon beharko du bere arduraren hartuko duen eta elkarriketan lagunduko dion heldu batekin, ahal dela, berak aukeratua. Esku-hartzean parte hartuko duen agenteak ikerketa-objektuarekiko adingabearen eta ardurazko

<sup>28</sup> Egoera ezohikoetan, biktimak mugikortasun-arazoak dituenetan eta bere egoitzatik mugitu ezin denean, Ofiziozko Txandako abokatuaren aholkularitza telefono bidezkoa izan daiteke.

helduaren artean interes-gatazkarik ez dagoela zaindu behar du, eta gatazkarik hautemanez gero, banatu egin beharko ditu eta adingabearen eskubideak bermatuko dituen hirugarren pertsona edo erakunde bat bilatu.

Salaketa jartzeko prozeduraren berri hizkuntza ulergarrian emango zaio biktimari, alderdi hauek zehaztuta: konfidentzialtasunaren mugak; salaketaren edukira norik izango duen sarbidea; elkarrizketaren arauak finkatzea; horren inguruko espektatiba irrealak saihestea.

Salaketa hau kontuan izanda bilduko da:

- Salaketa jasotzerakoan arreta berezia jarriko zaio biktimaren egoera emozionalari, giro segurua sortzen ahalegindu beharko da, toki eroso eta pribatuan, inork ez eteteko eta biktimaren pribatutasuna gordetzeko.
- Beharrezko neurri guztiak hartuko dira biktimaren eta familiaren edo haiekin dauden pertsonen eta erasotzailearen eta bere familiaren edo berarekin dauden pertsonen artean kontakturik ez dagoela bermatzeko.
- Aitorpena behar den guztietan etengo da eta, are, atzeratu ere egingo da, biktima aitorpena egiteko egoeran ez badago. Salaketa amaitu ondoren, biktimari kopia bat emango zaio.
- Haurren jokabidearen inguruko informazioa jaso behar da. Gakoa izan daiteke garaiz hautemateko eta erabakigarria izan daiteke babes eta haur eta nerabeentzako gizarte-zerbitzu espezializatuen arreta jaso dezaten. Kontuan izatekoa da emakumeen aurkako indarkeria dagoen testuinguruetan zuzeneko eraso fisikoak, hainbat tratu txar mota eta/edo sexu-abusuak pairatzen aritu daitezkeela; izan ere, ingurune horietan biktimak ezkutuan egon daitezke eta ikusezinak izan.
- Horietan lagunduko duten itzulpen-, zeinu-hizkuntzaren interpretazio- edo beste zerbitzu batzuetara joko da; betiere, zailtasun kognitiboak edo komunikaziorako beste oztopo batzuk dituzten biktimak informatu eta onarpena eman ostean.
- Desgaitasuna duten biktimekin kontuan izango dira indarkeria pasibo motak, esaterako, gertatzen ari litezkeen abandonu fisikoak, gehiegizko medikazioa edo medikazio desegokia eta abandonu emozionala.
- Ikerketa egingo da biktima migratuekin edo emakumeentzat kaltegarriak izan daitezkeen kultura-komunitateetako biktimekin, emakumeen genitalen mutilazioaren balizko kasuei eta nahitaezko ezkontzei buruz, gizarte- eta osasun-zerbitzuekin.

Ikerketaren arduradunak salaketa eta babes-agindua eta irekitako diligentsiak (bikotekideak, bikotekide ohiak edo familiako beste kideren batek eragindako indarkeria matxistaren kasuen arriskua balioestea) Epaitegian ahalik eta lasterren tramitatzeko ardura izango du, eta diligentsia bukatu eta 24 ordu baino gutxiagoan tramitatuko da.

Ertzaintzak izango du epaiketa azkarretarako hitzorduetarako agenda judiziala kudeatzeko ardura.

### **Arriskuaren balorazioa eta babes-neurriak**

Bikotekideak, bikotekide ohiak edo familiako beste gizonen batek eragindako indarkeria matxista kasuetan (EI/GIri dagozkien prozeduretan), EBA espedientea irekita eta deklarazioa hartzean biktimen hasierako arriskua baloratzeko ahalik eta informazio gehien bilduko da (emakumea, eta baleude, indarkeriak eragin dien emakumearen zaintza pean dauden adingabeak edo mendekotasuna duten beste pertsona batzuk). Ondoren, Epaitegiari bidaliko zaio.

Egindako arriskuaren balorazioaren emaitzaren arabera komenigarria bada, biktima babesteko neurri zehatzak hartuko dira.

Arriskuaren balorazioa prozesu iraunkorra da eta arrisku-adierazle berriak identifikatzeko aukera ematen duen informazioa dagoenean edo aurretik kontuan hartutako batzuk baztertu daitezkeenean eguneratuko da. Horregatik, arrisku maila biktimak une jakin batean duen egoeraren irudia da.

Egun, Ertzaintzak lau arrisku maila ditu ezarrita:

- Oinarrizko arrisku maila: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera txikia da.
- Arrisku maila neurritsua: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera dago.
- Arrisku maila altua: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera handia da.
- Arrisku maila berezia: indarkeriazko jazoerak gertatzeko aukera oso handia da.

Arrisku mailaren arabera, Ertzaintzak hainbat babes-neurri ezartzen ditu, besteak beste:

- Erasotzailearen zaintza eta jarraipena egitea, eta modu eraginkor eta operatiboan egin badaiteke, organo judizialaren zerbitzura dauden hurbiletik hautemateko sistemak erabiliko dira erasotzaileari ezartzen zaizkion urruntze-neurriak behar bezala betetzen direla bermatzeko.
- Errutinen inguruko prebentzio-jarduerak, telefono bidezko egiaztapenak eta ausazko bisitak, lekualdatzeak, babeserako aldizkako laguntza eta operatiboak.
- Biktimen babes etengabea. Halaber, etxean tratu txarrak jasan dituzten biktima guztiei babes-neurri hauek eskainiko zaizkie, haiek errefusatu ezean:
- Autobabeserako neurriei buruzko prestakuntza eta materiala.
- Eguneko 24 orduetan biktimaren eta polizia-zerbitzuen arteko komunikazio zuzena eta berehalakoa ahalbidetzen duten gailuak.
- EI/GI taldeak, eskumenekoak dituen sexu-erasoen kasuan, biktimak jasandako eraso aztertu ondoren, beste eraso bat gerta daitekeela pentsaraz dezaketen inguruabarrak edo elementuak daudenean, eta lortu nahi den babes-helburuarekiko neurria proportzionala denean, biktimari telefono bat emateko aukera eskainiko zaio, polizia-unitateekin zuzeneko lotura gisa, larrialdiren bat gertatuz gero

Garrantzitsua da biktimei jakinaraztea poliziaren esku-hartzeak muga batzuk dituela eta biktimaren babes orokorrerako estrategian Udaleko Berdintasun Sailak eta gizarte-zerbitzuek rol garrantzitsua dutela beren ongizatearen alderdiei arreta jartzeko eta familia- eta pertsona- errekuperaziori dagokionean.

Epaitegiek ebazpen judizialak Poliziari jakinaraziko dizkio inputatuaren prozesu-egoera kontuan hartu ahal izateko, baita kautelazko neurrien irismenaren eta indarraldiaren berri eman ere.

Poliziak BLZrekin kolaboratuko du Penak Kudeatzeko Euskadiko Zerbitzuak kartzelatik ateratzeari buruzko informazioa helarazteko garaian Poliziak lokalizatu ezin dituen biktimak topatzeko.

“Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren espedientea” dokumentuan jasotzen diren babes-neurriak eraginkorrak izateko, biktimaren eta erasotzaileen argazkiak atera ahal izango dira. Horretarako, biktimari “Datu pertsonalen erabilera baimentzeko akta” emango zaio sinatzeko, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak soilik erabiltzeko baimena eman dezan. Biktimaren baimena izan ondoren, biktimaren eta erasotzailearen argazki

eguneratuak eskatuko zaizkio. Espedientean dagoen poliziaren fitxa biktimaren eta erasotzaileen irudiekin eta oinarrizko datuekin inprimatu ahal izango da, eta informazio osagarria gehitu; maiz egoten diren lekuak, lan-jarduera, aktibo dauden poliziaren neurriak, etab.

### **Informazioa eta beste zerbitzu batzuetara bideratzea**

Idatziz helaraziko zaio biktimari bere eta bere zaintza pean dauden adingabeen eskubideen berri. Indarkeriak beren bizitzetan duen ondorioez eta administrazio publikoek berenganako dituzten babes-betebeharrez informatuko zaie.

EAEEn eskura dituzten baliabideen, zerbitzuen eta prestazioen berri emango zaie eta, bereziki, beren udalerrikoen berri: ekonomikoak, psikologikoak, bizilekuaren ingurukoak eta lege-aholkularitzakoak. Zerbitzu horietarako telefonoak ere emango zaizkie.

Administrazio-egoera irregularrean dauden atzerriko emakumeei jakinaraziko zaie salaketa jartzerakoan ez dela era irregularrean egoteagatik prozedura zigortzailerik hasiko, edo, prozedura hasi baino lehen hasita balego, bertan behera utziko dela. Halaber, epaia absoluziozkoa bada, zehapen-prozedura administratiboa hasiko dela jakinaraziko zaie.

Hala, era ulergarrian jakinaraziko zaie jasoko diren datuen inguruan, hau da, zertarako jasoko diren, nola gordeko diren, eta datu horiek behar bezala erabiltzeko erantzukizuna duen zerbitzua edo pertsona nor den. Datuak jakinarazteak zer onura dakartzan informatuko zaie eta ez egiteak zer ondorio izan ditzakeen, baita zuzentzeko eta bertan behera uzteko duten eskubideaz ere. Gainera, datuak konfidentzialak izango direla eta datuak jasotzeko xedearekin lotura dutenek soilik erabiliko dituztela jakinaraziko zaie.

Ahal dela, informazio guztia idatziz emango zaio, formatu propioa duten material dibulgatzaileen bidez edo jada badauden esku-orrien bidez.

**BAIMENA:** beharrezkoa izango da biktimen baimen informatua<sup>29</sup> jasotzea, idatziz edo egiaztatuta geratzeko moduan, informazioa beste zerbitzu batzuetako profesionali bidaltzeko (hainbat erakunde edo sistemetakoak).

---

<sup>29</sup> Ikusi IV. ERANSKINA.

### 9.3.2 Udaltzaingoa

Udaltzaingoak zerbitzu orokor hauek eskaintzen ditu:

- Autoritateen, eraikinen, instalazioen, udal-jabetzen eta espazio publikoen zaintza eta babesa.
- Bideko segurtasuna, sorospena istripuetan eta hondamendietan, legearen arabera.
- Araudiak, aginduak, bandoak eta udal ebazpenak indarrean dagoen araudiaren arabera betetzen direla bermatzea.
- Ingurumenaren eta ingurumenaren babesaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzea.
- Delituen biktimentzako laguntza eta babesa.
- Delituen ikerketetan epaileei, auzitegiei eta Fiskaltza Ministerioari laguntzea.
- Delituen prebentzioa.
- Manifestazioetan babestea eta giza pilaketetan ordena mantentzen laguntzea, beharrezkoa bada.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuetan Ertzaintzak du arretarako **eskumen nagusia**, baita zaintza- eta babes-jarduketetarako ere. Edonola ere, **polizia-kidego guztien konpetentziak dira larrialdiei arreta emateko eta biktimak babesteko zereginak**. Hala, sinatutako koordinazio-protokoloak aintzat hartuta, Udaltzaingoak Ertzaintzak behar dituen babes-eskaerak artatuko ditu, biktimari zerbitzu hobea emateko. Beraz, **emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean Udaltzainek honako oinarrizko zereginak dituzte:**

- Indarkeria matxistaren biktimek hala eskatzen dutenean premiazko arreta eskaintzea.
- Hainbat gizarte-baliabiderek koordinatzea. Herritarrengandik hurbil dauden heinean, tokiko errealitatearen inguruan duten oinarrizko ezagutzaren ekarpen garrantzitsua egiten dute.
- Indarkeriaren prebentzioa.
- Kasuak detektatzea
- Urruntze-neurriak betetzen diren kontrolatzea.
- Biktimen babesa.
- Komunitatean dauden gizarte-baliabideen informazioa ematea.
- Udaleko gizarte-zerbitzuekin koordinatzea.

#### **Prozedurak eta jarraibideak:**

Delitua izan litekeen emakumeen kontrako indarkeria matxistaren egoera baten presentziaren edo susmoaren aurrean, EAEko polizia-kidegoetako pertsonalak hurrengo prozedurak eta argibide orokorrak jarraituko ditu, larrialdiko egoerak (berehalako esku-hartzea eskatzen duten kasuetan) eta berehalako esku-hartzea behar ez duen egoerak bereizita (arreta arrunta).

Udaltzaingoak, lehenik, sor litezkeen jarrera oldarkorrak saihesten dituzten hautemate- eta prebentzio-jarduketan alde egiten du. Gertatuz gero, biktimek bide askotatik eska dezakete laguntza.

Indarkeria-egoeretarako sarbideak:

- Telefonoz. Tokian bertan esku hartzen da, eraso gertatzen ari den unean bertan.
- Emakumea polizia-etxera joaten da eraso gertatzen ari ez den unean.
- Hirugarren pertsona batek kasu baten berri ematen du, eraso gertatzen ari ez den unean.

#### **Premiazko jarduketa, tokian bertan**

Biktimak hala eskatzen badu edo beste pertsona edo erakunde batzuen salaketa baldin badago, polizia biktimaren etxera edo biktima dagoen tokira joango da eta beharrezkoa den denbora guztian geratuko da

jazoera neutralizatzeko eta biktimari edo biktimei laguntzeko.

Adingabeen presentziari arreta berezia jarri behar zaio, haurren jokabidea bildu behar da, gakoa izan daiteke garaiz hautemateko eta erabakigarria izan daiteke babes eta haur eta nerabeentzako gizarte-zerbitzu espezializatuen arreta jaso dezaten. Kontuan izatekoa da emakumeen aurkako indarkeria dagoen testuinguruetan zuzeneko eraso fisikoak, hainbat tratu txar mota psikologiko, emozional eta/edo sexu-abusuak pairatzen aritu daitezkeela; izan ere, ingurune horietan biktimak ezkutuan egon daitezke eta ikusezinak izan.

Ahalik eta informazio gehien bilduko da biktimen hasierako arriskua baloratzeko (emakumea, eta baleude, indarkeriak eragin dien emakumearen zaintzan dauden adingabeak edo mendekotasuna duten beste pertsona batzuk), Ertzaintzari jakinaraziko dio eta iritsi arte emakumea eta bere tutoretzan edo zaintzan dauden seme-alabak artatzeaz arduratuko da, beharrezkoa izanez gero erasotzailea atxilotuko du eta atestatua osatzen lagunduko duen informazio guztia jasoko du. Esku-hartze horren ostean, agerraldiaren akta egingo da Ertzaintzaren atestatuan sartzeko.

Biktimak osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu, edo ikusi ez arren susmoak badaude, zerbitzuarekin telefonoz jarriko da harremanetan dagokion mediku-zerbitzuarekin, dagokion arretarako sarbidea koordinatzeko. Abisua emango zaie prest egon daitezen eta medikua edo auzi-medikua bertaratzeko beharrezko gestioak egin ditzaten. Emakumeari lesioen agiri ofiziala eskatzeak duen garrantzia nabarmenduko zaio, salaketa jartzen badu aurkeztu ahal izateko.

**Berriki gertatutako sexu-indarkeria** bada (azken 240 orduetan gertatua), biktima gertuen dagoen ospitaleko larrialdi-zerbitzura eramango da (Mendaroko Ospitaleko Ginekologia Larrialdiak<sup>30</sup>). Polizia-taldea aurretiaz koordinatuko da ospitalean hartzeko, bai eta ospitalean medikua edo auzi-medikua egon dadin eskatzeko ere, mediku-azterketa egin eta laginak hartu ahal izateko. Nolanahi ere, auzi-medikuari gertakariaren inguruan dauden datu guztiak emango dizkiogu. Biktimari jakinaraziko zaio ez dituela eskuak garbitu eta arropak aldatu behar, ezta ezer jan edo edan ere aho-bidezko erasoak egon badira.

Arreta psikosoziala balioetsiko da eta biktimari gizarte-zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko zaio edo, zerbitzu horren ordutegi arruntetik kanpo bada (08:30-14:00), GLFZ Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuarekin<sup>31</sup> jartzeko, profesionalak bertara daitezen, lagun diezaioten, emozioen atxikipenean lagun diezaioten eta, behar balitz, berehalako harrera-baliabidera sartzea kudea dezaten. Biktimak ezetza adierazi ezean, ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie aipatutako zerbitzuei.

Emakumearen tutoretzan edo zaintzan dauden eta indarkeria zuzenean, lekuko edo bizikide direlako pairatzen duten adingabeak daudenean, biktimatzat hartzen ditu legeak; beraz, arreta eta babes egokia izan behar dute. Emakumea adingabeen zaintzaz arduratu ezin den unerako biktimak esandako pertsoneri edo senideei eskatuko zaie laguntza. Hori posible ez bada, gizarte-zerbitzuekin jarriko dira harremanetan prozesu osoan zehar laguntzeko.

Indarkeria matxista jasandako **haurrak eta nerabeak gehitu beharko dira atestatuan**; izan ere, indarkeria horren biktima gisa onartuta daude legeez; beraz, trataera espezifikoa, indibidualizatua eta independentea jasotzeko eskubidea dute.

### Aurrez aurreko arreta polizia-kidegoaren etxean

Biktimak osasun-arreta behar duten lesio fisikoak, psikologikoak edo emozionalak baditu, edo ikusi ez arren susmoak badaude, aurreko atalean adierazi den moduan jardun beharko da, dagokion arreta osasun-

<sup>30</sup> Ikusi I. ERANSKINA

<sup>31</sup> Ikusi I. eta II. ERANSKINAK.

sistemarekin koordinatuta.

Biktimak osasun-laguntzarik behar ez duten lesioak baditu, bere eskubideen berri idatziz emango zaio, bai eta laguntzeko baliabideen berri ere: baliabide ekonomikoak, psikologikoak, etxebizitzarenak eta lege-aholkularitza. Zerbitzu horien telefono-zenbakiak emango zaizkio. Informazio guztia idatziz emango zaio, material dibulgatzaileen bidez edo esku-orrien bidez.

Bi kasuetan kasuaren inguruko ahalik eta informazio gehien bilduko da ahalik eta atestatu osoena eta zehatzena egiteko. Gogorazi beharrekoa da indarkeria-testuinguruan haur eta nerabeak bizi diren ikertu behar dela; izan ere, erabakigarria da garaiz hautemateko eta biktima gisa behar dituzten babes eta arreta espezializatuak emateko.

Salaketa jartzeko prozeduraren berri hizkuntza ulergarrian emango zaio biktimari, alderdi hauek zehaztuta: konfidentziasunaren mugak; salaketaren edukira norik izango duen sarbidea; elkarriketaren arauak finkatzea; horren inguruko espektatiba irrealak saihestea. Babes-agindua eskatzeko aukerari buruzko informazioa ere emango zaio, eta honetarako eskubidea duela:

- Doako lege-laguntza.
- Prozesu penalaren parte izateko eskubidea.
- Babes pertsonalerako laguntzak eskatzekoa.
- Banaketa zibilerako aldi baterako neurriak eskatzekoa.

#### **Salaketaren kudeaketa**

Biktimak salaketa jarri nahi badu, esku-hartzearen eskumen nagusia Ertzaintzak duela jakinaraziko zaio, eta Eibarreko Ertzain-Etxera deituko da kasua helarazteko. Emakumea bere segurtasunaren beldur bada edo bere edo bere seme-alaben edo hirugarren pertsonen segurtasunaren kontrako arrisku-zantzuak badaude, emakumeak Ertzaintzarekin egin behar dituen kudeaketa guztietan eta lekualdatzeetan lagunduko zaio. Era berean, azken lekualdatzea egin arte, zeregin hauek egingo dira:

- Salaketa jartzearen erabilgarritasunaren eta egin beharreko urratsen informazioa ematea.
- Gertakarien txostena egitea, dagokion atestaturia egiteko Ertzaintzari bidaltzeko.
- Laguntza-zerbitzuen berri ematea biktimari.
- Ertzaintzak biktimaren berririk ez duela ikusiz gero, Udaltzaingoak behar dituen datuak emango dizkio (babes-aginduak, etxebizitzak, etab.).
- Jarduketa guztia zehatz erregistratuko da eta esku-hartzean jasotako informazioa Gizarte Zerbitzuei helaraziko zaie, biktimak baimena sinatu ostean, esku-hartzearekin eta koordinazioarekin jarrai dezaten.
- Emakumearen segurtasuna bermatzeko, bere arreta profesionalean ez dauden pertsonen ez zaie bere zuzeneko edo zeharkako jarduketaren edo bera dagoen tokiaren informaziorik emango, ezta senideei, bizilagunei edo lagunei ere.

**Emakumeak salaketa jarri nahi ez badu**, bere eskubideen eta baliabideen inguruan informatu ondoren, kasua Udaleko gizarte-zerbitzuetara bideratzen saiatuko da. Kasu guztietan, *datu pertsonalak erabiltzeko baimena* sinatzeko eskatuko zaio.

Segurtasuna bermatzeko familia-egoitza berehala utzi eta larrialdietarako ostaturia behar bada, adierazitako helbidera lekualdatuko da emakumea, edo udaleko gizarte-zerbitzuekin kontaktatuko da, horren arreta-

ordutegitik kanpo, Gizarte Larrialdiekin.

## Eskatuta jardutea

### Gizarte-zerbitzuek eskatuta jardutea

Udaltzaingoaren funtzioen artean dago Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek (OGZ) eskatzen dutenean jardutea, kasu hauetan:

- Biktima zaintzea urruntze-agindua lortu bitartean.
- Emakumeari bere etxera laguntzea. Emakumea berriro biktimizatzea ekiditeko, udaltzainak kalez jantzita joaten ahaleginduko dira.
- Hala badagokio, biktimaren etxera poliziaren bereizgarririk gabe joatea Gizarte Zerbitzuekin duen hitzordua entregatzeko.

Epaitegitik urruntze-agindua jasotzen denean, kasua Elgoibarko gizarte-zerbitzuek ere artatzen ote duten egiaztatuko da. Artatzen ez badute, jakinarazi egingo zaie koordinatzeko.

### Ertzaintzak eskatuta jardutea

Babes-agindua baldin badago eta Ertzaintzak eskatuz gero, Udaltzaingoak biktima babesten eta zaintzen lagundu ahal izango du, koordinatutako jarduketaren bidez.

Ertzaintzak baloratuko du emakumeak zer nolako arriskua duen eta neurri egokiak erabakiko ditu. Udaltzaingoak, aldiz, babesten nork parte hartuko duen eta nork ez erabakiko du eta hainbat babes-neurri jarriko ditu martxan: emakumeari ausazko bisitak egitea, norabait joaten laguntzea, babeserako operazio puntualak.

**BAIMENA:** beharrezkoa izango da biktimen baimen informatua<sup>32</sup> jasotzea, idatziz edo egiaztatuta geratzeko moduan, informazioa beste zerbitzu batzuetako profesionaleri bidaltzeko (hainbat erakunde edo sistemetakoak).

---

<sup>32</sup> Ikusi IV. ERANSKINA.

## 9.4 Berdintasun Sailaren jarduketa

Emakumeen aurkako indarkeria da sexuagatiko diskriminazioaren adierazpenik krudelena, eta, horregatik, hainbat erakunderen Berdintasun Sailen jarduketarako sail espezifikoak da. Berdintasun Zerbitzuaren bidez, tokiko erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko politikak sustatu, koordinatu, jarraipena egin eta ebaluatzen dituzte, eta, zehazki, emakumeen aurkako indarkeriaren ingurukoak.

Halaber, politika horiek indartu egiten dute indarkeria hori jasaten duten emakumeen arretan eskumena duten zerbitzuekin egiten den lana. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4. artikulua ezartzen du Euskadiko Autonomia erkidegoko udalei dagokiela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak legeak xedatzen duenaren arabera gauzatzea.

Bestalde, Genero indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 19.7 artikulua honako hau jasotzen du: *“Berdintasunerako organismoek egiten diren programak eta ekintzak bideratu eta baloratuko dituzte eta hobetzeko gomendioak igorri”*. Hala, protokolo hau praktikan jartzeko koordinazioa dagokie, bai eta ezartzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea ere. Koordinazio Teknikoko Mahaiaren eta Koordinazio Estrategikoko Mahaiaren bidez islatzen da bere lidergoa. Mahai horiek, besteak beste, erakundeen arteko koordinazioa egiten dute eta erakundeen erantzukizunak eta protokolo honetan jasotako neurriak betetzea sustatzen dute.

Gainera, Berdintasun Sailak emakumeen aurkako indarkeria ulertzea sustatzen du, biktima guztiak artatzeko mekanismoak ezartzen ditu, baliabideetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegia txertatzen du eta ahalduntzeko eta normalizatzeko prozesuaren beharra adierazten du.

Halaber, informatzeko, sentsibilizatzeko eta zabaltzeko ekintzak antolatzen ditu (esaterako, azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, edo jaietan), eta prestakuntzak egiten ditu politikarientzat, teknikarientzat, eta gizarte-langileentzat.

Halaber, bere funtzioen artean daude Elgoibarko emakumeen ahalduntze-eskola koordinatzea (espazio hori ezinbestekoa da prebentziorako, hautemateko, laguntzeko eta osatzeko) eta beste erakunde (Emakunde, Eudel, etab.) eta sare (Berdinsarea, etab.) batzuekin koordinatzea.

Bere funtzioen artean ez dagoen arren indarkeria matxista jasaten duten emakumeei zuzeneko arreta eskaintzea, udalerrian kasuak hautemateko “puntuak” da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lanean erreferentziazkoa delako bai politikarientzat, bai gizarte arloko langileentzat.

Emakumeren batek Berdintasun Sailari laguntza eskatuz gero, bai zuzenean, bai elkarteetan eta/edo mugimendu feministaren bidez, lehen harrera-elkarrizketa egingo zaio (aurrez aurre edo telefonoz), eta bere egungo egoeraren eta eskariaren inguruko informazioa jasoko da, informazioa eman ahal izateko eta baliabide eta zerbitzu egokiagoetara sartu ahal izateko. Arreta berezia jarriko da Elgoibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen (OGZ) bidez Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemara sartzeko. Horretarako, aldezturik, emakumeak datuak bildu eta beste erakundeei uzteko baimena eman beharko du, erakundeen artean koordinatzeko.

**BAIMENA:** beharrezkoa izango da biktimen baimen informatua<sup>33</sup> jasotzea, idatziz edo egiaztatuta geratzeko moduan, informazioa beste zerbitzu batzuetako profesionali bidaltzeko (hainbat erakunde edo sistemetakoak).

<sup>33</sup> Ikusi IV. ERANSKINA.

Hauek dira protokoloa aplikatzen dela sustatzeko zeregin nagusiak:

#### **Koordinazio Teknikoko Batzordearekin Koordinatzea**

- Sinatu duten eragileen arteko koordinaziorako dinamikak sustatzea eta koordinazioa hobetzea.
- Sinatu duten eragileek Protokolo honen edukiaren eta baliabideen inguruko informazio eguneratuta dutela bermatzea.
- Sinatu duten eragileei kontsultatuta gai-zerrenda egitea, eta taldeko bileretan akta dinamizatu eta jasotzea.
- Koordinazio Teknikoko Batzordearen eta udalerriko beste eragile batzuen arteko harreman eta lankidetzaren egonkorra sustatzea, bizitza-proiektuak garatzeko edota emakumeak ahalduentzeko ekintzak martxan jartzen, horiek goiz antzematen eta prebenitzen lagun dezaten.
- Berdintasun Saila arduratuko da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioaren eta sentsibilizazioaren arloan Gizarte Zerbitzuek eta Udaltzaingoak egiten duten esku-hartzean jardueren koherentzia mantentzeaz.
- Erakunde sinatzaileek aldizka emango diote artatutako kasuen kopuruaren berri Berdintasun Sailari.
- Berdintasun Saila arduratuko da sei hilean behin bilera bat egiteaz, ordura arte egindako lana baloratzeko eta proiektatzeko, eta koordinazioa hobetzeko proposamenak egiteko.
- Berdintasun Sailak prebentzioaren, sentsibilizazioaren edo emakumeen ahalduentzearen arloan egindako programen berri emango die aldizka Gizarte Zerbitzuei, Gizarte Zerbitzuek programa horiek eskaini ahal izateko.
- Halaber, jarduketa-protokoloa berrikusiko da bilera horretan, eskaintako arreta hobetzeko eta behar bezala garatu gabeko alderdiak berrikusteko. Hobekuntzak eta aldaketak egiteko aukera egongo da.

#### **Koordinazio Politikorako Batzordearekin Koordinatzea**

- Arlo horretaz arduratzen den pertsonarekin lankidetzan aritzea gai-zerrenda egiteko, bilerak dinamizatzea eta mahaiko bileren aktak jasotzea.
- Protokoloaren jarraipenaren urteko memoria egitea, eta Koordinazio Estrategikorako Taldeari aurkeztea.
- Urteko Ekintza Planerako proposamena egitea eta Koordinazio Estrategikorako Taldeari aurkeztea onartzeko, protokoloa ezarri eta etengabe hobetzen dela bermatzeko ekintzak eta/edo neurriak abian jartzeko.

#### **Datuen biltzea eta azterketa**

- Protokoloa sinatzen duten sistema guztien datuak biltzea.
- Protokoloaren parte diren zerbitzu eta erakundeek igorritako datuen azterketa egitea urtero.

### **Hedapena eta prestakuntza**

- Protokolo honen edukiak hedatzea langileen artean, sinatu duten eragileen artean eta haien langileen artean.
- Udalerriko beste erakunde, zerbitzu eta elkarteetan hedatzea.
- Sinatu duten eragileek dituzten prestakuntzaren beharrak identifikatzea eta ezagutzak eguneratzea, baita eragile horien lankidetzarekin arreta eta koordinazioa etengabe hobetzeko urteko proposamena egitea ere.

### **Ezarpenaren ebaluazioa**

Protokoloa etengabe hobetzeko, urteko jarraipena egiteaz gain, jarduketa ezinbestekoa da Protokoloa Ebaluatzeko Unitatearen arduradun gisa. Funtsean, kontuak emateko prozesuak sustatzen ditu, Elgoibarko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren fenomenoaren bilakaera aztertzen du eta indarkeria horren biktimentzat koordinatutako arretan hobekuntzak egiten ditu.

## 10. Erakundeen artean koordinatzeko mekanismoak

Dokumentu honetan lortutako akordioak modu eraginkorrean aplikatzeko, komeni da koordinaziorako espazio egonkorak izatea. Espazio horietan sinatu duten erakundeen artean lan egin ahal izango da erronkarik edo koordinaziorako korapilorik handienak dituzten kasuak lantzeko. Halaber, zailtasunen inguruan gogoeta egin eta irtenbideak identifikatu ahal izango dira, prestakuntza eta ezagutzak berrelikatu, informazio eta erregistroak partekatu, hobetzeko proposamenak egin, neurriak onartu, jarduketak edo jarduteko ildoak berriro diseinatu... Azken finean, protokolo honen oinarrian dauden printzipioak eta ikuspegiak bermatzeko jarduketa guztiak.

Horretarako, koordinaziorako bi espazio egonkor finkatu dira. **Koordinazio Teknikorako Batzordea eta Koordinazio Politikorako Batzordea.**

Tratamendu fokalizatua behar duten gai espezifiko edo sektorialeiei heltzeko, lantalde zehatzak eta aldi baterakoak sortu ahal izango dira<sup>34</sup>, eta koordinaziorako batzorde iraunkorrei erantzun eta informatuko diete beti.

### Koordinazio Teknikoko Batzordea

*Erakundeen Arteko Koordinazio Mahaia* biktimekin esku hartzen duten instantzia guztietako profesionalak osatuko dute:

Gizarte-zerbitzuak	Osasuna	Segurtasuna	Berdintasuna
• Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ)	• Osasun Zentroa (Lehen Arreta eta ESI)	• Udaltzaingoa • Eibarko Ertzain Etxea	• Berdintasun Saila

Osatzen duten pertsonak **haien erakundea ordezkatu** beharko dute, gaiaren inguruan ezagutza nahikoak izan eta sor daitezkeen konpromisoak hartzeko beharrezko gaitasunak izan. Halaber, Protokoloaren edukiak, koordinaziorako espazioetan jorratzen diren gaiak eta haien erakundeetan hartutako erabakiak jakinarazi beharko dituzte, ezarri ahal izateko. Koordinazio Teknikoko Batzordeak funtzio hauek ditu:

- Zailtasun handiagoak dituzten edo trabak izan diren kasuetarako irtenbideak aztertu eta bilatzea.
- Koordinazioa bermatzeko eta hobetzeko, eta jarduteko protokoloan jasota dauden neurriak eta jarraibideak modu eraginkorrean aplikatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak proposatzea.
- Sinatu duten aldean artean jarduteko proposamen bateratuak egitea, bai eta protokolo honen xedearen arloan hainbat baliabideri eragiten dieten esku-hartzeak eta jarduketak koordinatzea ere.
- Jarduteko protokoloaren edukiak protokoloa indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen ekimen berrietara edo baldintzetara egokitzeko proposamenak egitea.
- Batzorde teknikoaren edo indarkeria pairatu duten emakumeen arretan esku hartzen duten profesionalen prestakuntza-beharrak detektatzea.
- Erakunde bakoitzean garatutako protokoloaren eta esku-hartze profesionalaren funtzionamendua ebaluatzea.

<sup>34</sup> Bai talde horietan, bai koordinazio teknikoko eta politikoko guneetan, informazio partekatuari behar bezalako zuhurtasunez eta Datuak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren aginduak errespetatuz erantzun zaitzaio.

- g) Datuak jasotzea eta berdintasun-teknikariari bidaltzea. Jaso behar diren datu motak koordinaziorako mahaiak zehaztuko ditu.
- h) Jarduteko protokoloan ezarritako jarraibideak betetzen ez direlako keak edo jazoerak jasotzea eta, hala badagokio, zuzentzeko neurriak proposatzea.
- i) Bere jarduketa-arloan esleitzen zaizkion beste edozein.

**Urtean bi aldiz bilduko da osoko bilkuran** eta ezohiko bilkurak egingo ditu egoerak hala eskatzen duenean. Kasu horietan, erakunde bakar batek egin dezake mahaiaren deialdia, berdintasun-teknikariaren bitartez.

Batzorde hori dinamizatzeko, Berdintasun Saila arduratuko da eguneko gai-zerrenda proposatzeaz, deialdiak eta bileren aktak egiteaz, eta informazioa zirkulazioan dagoela eta kideentzat eskuragarri dagoela bermatzeaz. Zerbitzu hori arduratuko da parte-hartzeko bitartekoak sortzeaz eta esku hartzen duten aldean koordinazioaz; bestalde, batzordea protokoloak ezarritakoaren arabera bilduko dela bermatuko du.

Urtero, memoria bat egingo du eta sinatu duen erakunde bakoitzari aurkeztuko dio. Bertan, egindako jarduketak edo Koordinazio Teknikorako Batzordean hartutako erabakiak jasoko dira, urtean zehar erregistratutako intzidentzien datuekin batera. Bere jardueraren garapena ere ebaluatuko du urtero.

#### Koordinazio Politikoko Batzordea

Arretan zuzenean esku hartzen duten autoritateek edo sinatu duten erakundeetako ordezkari arduradunak osatzen dute, eta Berdintasun Sailak koordinatzen du. Batzordea **urtean behin bilduko da gutxienez, edo kideren batek hala eskatutako ezohiko bileran.**

Elgoibarko Udala	Osasuna	Segurtasuna
•Alkatetza	•Osasun-autoritateak (Osasun Zentroa_Lehen Arreta eta ESI)	•Eibarreko ertzain-etxeke autoritateak

Kideek erabakiak hartzeko gaitasuna izan beharko dute hitzarmenetako aldaketen inguruan, protokolo honetako konpromisoen inguruan, jarduketaren inguruan edo indarkeria matxistaren arloko koordinazioaren inguruan. Koordinazio Teknikoko Batzordeak egindako akordioak gauzatzen direla bermatu beharko dute.

Koordinazio Politikoko Batzordeak funtzio hauek ditu:

- a) Urteko lan-plana onartzea, komenigarriak diren konpromisoekin eta neurriekin, koordinazioa hobetzeko eta protokoloan jasota dauden neurriak eta jarraibideak modu eraginkorrean aplikatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak proposatzeko.
- b) Sinatu duten aldean artean jarduteko proposamen bateratuak onartzea, bai eta protokolo honen xedearen arloan hainbat baliabideri eragiten dieten esku-hartzeak eta jarduketak koordinatzea ere.
- c) Jarduteko protokoloaren edukiak protokoloa indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen ekimen berrietara edo baldintzetara egokitzeko proposamenak onartzea.
- d) Ebaluazioak eta urteko txostena kontuan izanik protokoloaren xedearekin lotuta dauden hitzarmenak onartzea.

e) Bere jarduketa-arloan esleitzen zaizkion beste edozein.

Berdintasun Saila arduratuko da urteko memoria egin eta erakunde bakoitzeko arduradunari igortzeaz, memoria horrek jasoko ditu protokoloaren ezarpena, Elgoibarko indarkeriaren inguruko datuak, batzorde teknikoaren balorazioa eta hobetzeko proposamenak eta mugimendu feminista. Koordinazio Politikorako Batzordearen bileren deialdiak eta aktak dinamizatzeko eta aholkatzeko ardura ere izango du. Zerbitzu hori arduratuko da parte-hartzeko bitartekoak sortzeaz eta esku hartzen duten aldean koordinazioaz; bestalde, batzordea protokoloak ezarritakoaren arabera bildu eta funtzioak betetzen dituela bermatuko du.

### **Lankidetzak**

Protokolo honen arabera, ezinbestekoa da lankidetzaharremanak ezartzea eta sendotzea indarkeria matxistaren biktimek indarkeriarik gabeko bizitza-proiektuak garatu ahal izan ditzaten laguntzen duten beste eremu edo sistema publiko edo pribatu batzuetako eragileekin.

Gainera, prebentzioan, hautematean, sentsibilizazioan edo indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen ahalduz jarduten duten eragileen lanaren balioa azpimarratzen du, eta eragile horien artean lankidetzagoteak duen garrantzia nabarmentzen du; Ikastetxeak, elkarte eta talde feministak, Hirugarren Sektoreko Erakundeak, etab.

Sinatu ez duten beste eragile adierazgarri batzuekin lankidetzaz bermatzeko, Berdintasun Saila **komunikazio-bideak zabaltzeaz arduratuko da eta beharrezkoak diren sektoreko eta sektoreen arteko bilerak egingo** ditu, protokoloa ezagutzeko, lankidetzarako ekintzak identifikatzeko eta emandako arretan hobetzeko arloak hautemateko.

Haien aukeretara egokitutako komunikatzeko eta lankidetzarako formulak bilatuko dira (bilera puntualak, e-mail informatiboak, etab.). Harremana pixkanaka sor daiteke, eta batzuk lehenetsi edo interakzioan hainbat formula erabili.

## 11. Jarraipena eta ebaluazioa

Berdintasun Saileko teknikariak arduratuko dira protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduketak sustatzeaz.

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko formula mistoak erabiliko dira: jarduketa aldizka ebaluatzea (urtean behin, esaterako), esku hartzen duten eragileak elkarrizketatzea, gogobetetzearen inguruko inkestak egitea, jarraipenerako adierazleen sistema sortzea, etab. Gainera, urtean zehar Berdintasun Sailak hautemandako jazoerak edo hobetzeko alderdiak erregistratu ahal izango dira. Horiek Koordinazio Teknikoko Mahaia osatzen duten eragileen jardueratik sortuko dira batik bat.

Berdintasun Sailak memoria bat egingo du urtero, eta Koordinazio Teknikoko Mahaiarekin egiaztatuko du. Ondoren, sinatu duten erakundeei aurkeztuko die. Bertan, egindako jarduketak, Koordinazio Teknikoko Mahaian hartutako erabakiak eta proposamenak jasoko dira, eta urtean zehar jasotako datu kuantitatiboak erregistratuko dira, indarkeriaren inpaktua ezagutu ahal izateko.

## 12. Berrikuspena eta indarraldia

Protokolo honek gehienez ere lau urteko indarraldia izango du, eta beste horrenbeste luzatu ahal izango da, baldin eta erakunde sinatzaileek aho batez hala erabakitzen badute. Epe horretan, dokumentu hau gertatzen diren gizarte- eta arau-aldaketetara egokitu ahal izango da, betiere erakunde sinatzaileek aho batez baliozkotuta.

## 13. Datuen babesa

Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege organikoa betez, II. TITULUAN datuak babesteko, biltzeko eta beste erakundeei uzteko printzipioak jasotzen diren moduan, besteak beste, honako betebeharrak hauek beteko dira:

### 5. artikulua. Konfidentzialtasun-betebeharra.

1. (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 5.1.f) artikuluan aipatzen den konfidentzialtasun-betebeharraren mende egongo dira datuen tratamenduaren arduradunak eta eragileak, bai eta edozein fasetan esku hartzen duten pertsona guztiak ere.
2. Aurreko paragrafoan adierazitako betebeharrak orokorra sekretu profesionalaren betebeharraren osagarri izango da, aplikatzeko den araudiaren arabera.
3. Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrari eutsiko zaie, betebeharrekoak tratamenduaren arduradunarekin edo eragilearekin duen harremana amaitu bada ere.

### 6. artikulua. Ukituaren baimenean oinarritutako tratamendua.

1. (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 4.11 artikuluan xedatutakoaren arabera, ukituaren onespentzat hartzen da ukitutako datu pertsonalen tratamendua onartzen duen borondate aske, espezifiko, informatu eta zalantzarik gabeko adierazpen oro, dela adierazpen baten bidez, dela baiezkotutako ekintza argi baten bidez.
2. Datuen tratamendua interesdunaren adostasunean oinarritu nahi denean hainbat helburutarako, beharrezkoa izango da berariaz eta zalantzarik gabe jasotzea adostasun hori horiei guztiei ematen zaiela.
3. Kontratua gauzatzeko, ukituak ezin izango du datu pertsonalen tratamendua baimendu kontratu-

harremana mantentzearekin, garatzearekin edo kontrolatzearekin zerikusirik ez duten helburuetarako.

#### **7. artikulua. Adingabeen adostasuna.**

1. Adingabe baten datu pertsonalen tratamendua haren adostasunean oinarritu ahal izango da soilik hamalau urtetik gorakoa denean.

Salbuespen izango dira legeak guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularren laguntza eskatzen duen kasuak tratamendurako adostasuna eskatzen duen egintza edo negozio juridikoa egiteko.

2. Hamalau urtetik beherakoen datuak tratatzea, adostasuna oinarri hartuta, guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularrena jasota dagoenean bakarrik izango da zilegi, guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularrek zehaztutako irismenarekin.

Arau-hauste arintzat hartuko dira, besteak beste, honako hauek:

- Ukituaren informazioaren gardentasun-printzipioa edo informazio-eskubidea ez betetzea, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 13. eta 14. artikuluetan eskatutako informazio guztia ez emateagatik.
- Ukitua identifikatu beharrik ez dagoen tratamenduetan datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratatzeko edo eramateko eskubideak eragozte, oztopatzea edo behin eta berriz ez betetzea, baldin eta interesdunak, eskubide horiek baliatzeko, datuak identifikatzeko informazio gehigarria eman badu.

**Sinatu duten erakundeek argi azalduko beharko diete emakumei baimena ematearen garrantzia; izan ere, horrekin aktibatzen da bere eskura dauden baliabideak lortzeko makinaria, eta, hala, koordinazio eta arreta osoa bermatzen da.**

**Emakumeak baimena ematen badu, instituzioak automatikoki eta atzerapenik izan gabe igorriko die informazioa beste erakundeei. Baimenik ematen ez badu, datuak jaso eta Berdintasun Sailera igorriko dira bereizita, emakumea ez identifikatzeko. Berdintasun Sailak Protokolo hau sinatu duten gainerako sistemekin partekatuko ditu bereizitako datuak Koordinazio tekniko eta politikoko batzordeetan<sup>35</sup>.**

---

<sup>35</sup> Ikusi III. ERANSKINA.

## I. ERANSKINA – BALIABIDEEI BURUZKO INFORMAZIOA

### SOS DEIAK – 112 Larrialdi Zerbitzua

112 larrialdi mota guztietan berehalako erantzuna emateko zerbitzua da. Garrantzitsua da emakumeei azaltzea ez dela informazio orokorrerako zerbitzua, eta arriskuan daudenean edo premiazko laguntza behar dutenean soilik erabili behar dutela.

### SATEVI – Telefono Bidezko 24 Orduko Arretarako Zerbitzu Espezializatua

Doako telefona: 900 840 111

Zerbitzua da:

- Anonimoa, konfidentziala, doakoa eta 24 orduz dago eskuragarri urteko 365 egunetan.
- Ez du seinalerik uzten telefono-fakturan (baina komeni da zenbakia ezabatzea deien erregistrotik).

Nork artatzen du?

Indarkeria matxistan espezializatutako profesionalen taldea: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala, zainketa-falta, etab.

Nori zuzendua dago?

- Indarkeria bizi duten edo bizi izan duten emakumeei.
- Orientazioa behar duten edo zalantzak argitu nahi dituzten senideei edo profesionali.


Ezaugarri adierazgarriak:


- Arreta 51 hizkuntzatan.
- Entzuteko eta/edo hitz egiteko zailtasunak dituzten pertsonentzako bideo-interpretazio zerbitzua (zeinu-hizkuntza).


Zer eskaintzen du?

- Entzute aktiboa, laguntza emozionala eta ahalduntze-prozesurako laguntza.
- EAEn eskuragarri dauden eskubideei eta baliabideei buruzko informazioa.
- Aurrez aurreko zerbitzuetara bideratzea pertsonak hala nahi badu.

### Sexu Indarkerian Espezializatutako Arreta – 24 orduko Krisi Zentroak

 Hariberria – Gipuzkoako Krisi Zentroa

 Telefona: 900 840 188

 WhatsApp: 747 44 43 89

 E-maila: [hariberria@gipuzkoa.eus](mailto:hariberria@gipuzkoa.eus)

Zer da?

Sexu-indarkerian espezializatutako doako zerbitzua da eta hau eskaintzen du:

- Arreta psikologikoa, soziala, hezkuntzakoa eta juridikoa.
- Informazioa, orientazioa eta laguntza integrala.
- Aurrez aurreko edo urruneko arreta, 24/7.

Nori zuzenduta dago?


- Berriki edo iraganean sexu-erasoak bizi izan dituzten 16 urte edo gehiagoko emakumeei.
- Haien senideei edo inguruko pertsoni.

Zer da sexu-indarkeria?

Onespenik ez duen eta sexu-bizitza libre garatzea mugatzen duen sexu-ekintza oro, edozein arlotan (digitalean barne), xantaiak, larderiak edo botere-gehiagikeria barne.

### BLZ - Biktimari Laguntzeko Zerbitzua

Aurrez aurreko arreta, konfidentziala eta doakoa delitu baten biktima izan den edonorentzat.

 900 180 414 telefona

Zer eskaintzen du?

- Aholkularitza soziala, juridikoa eta psikologikoa.
- Prozesu judizialerako laguntza.
- Biktimaren eskubideei buruzko informazioa ematea eta erasotzailea espetxetik ateratzen denean jakinaraztea (behin behinean zein behin betiko).

Talde profesionala: legelariak, psikologoak eta gizarte-langileak.

Arreta-ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 08:30etik 15:00etara
- Asteartea eta asteazkena: 16:30etik 19:00etara
- Uztailean eta abuztuan: 08:00etatik 15:00etara

### Haur eta Nerabeentzako Arreta - Zeuk Esan

☎ Doako telefono anonimoa: 116111

🕒 Ordutegia:

- Asteazkenean: 09:00etatik 21:00etara
- Larunbatak, igandeak eta jaiegunak: 12:00etatik 20:00etara

Telefono bidezko arretarako zerbitzua da eta webgunea, blogak, sare sozialak, bideo-kanala eta kontsultarako ontzia ere eskuragarri ditu.

Nori zuzenduta dago?

- Laguntza behar duten Euskadiko haur eta nerabeei.
- Indarkeria-egoerak jasaten aritu daitezkeen adingabeei buruzko kontsultak egin nahi dituzten helduei.

### Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua: 24 orduko arreta.

Ettxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria bizi duten Gipuzkoako emakumeen segurtasuneko premiazko beharrei erantzuteko zerbitzua. Egoera baloratu ondoren eta hala nahi izanez gero, harrera-baliabidera lagunduko zaio emakumeari, bizilekuaren arabera. 24 orduz dago eskuragarri urteko egun guztietan.

☎ Telefonoa: 943 22 44 11 (herritarrek)

☎ Telefonoa: 943 22 49 10 (profesionalak).

### Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Koordinazio-Zentroa

☎ Telefonoa: 944 016 726

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Administrazio Publikoaren Sailaren mende dagoen zentro horren helburua da babes-aginduen zein epaitegiek emakumeen aurkako tratu txarrekin eta familia barruko indarkeriarekin lotuta agintzen dituzten gainerako neurrien jarraipena egitea, bai eta inplikaturako erakundeak koordinatzea ere.

Baliabideei buruzko informazio gehigarria eta zer egin indarkeria-egoeretan: <https://ekim.euskadi.eus>



## II. ERANSKINA TELEFONO ERABILGARRIEN AGENDA. ELGOIBARKO PROTOKOLOA

ERAGILEA	TELEFONOA/FAXA/E-MAILA	ORDUTEGIA
<b>Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ)</b>	943 741008 <a href="mailto:ongizatea@elgoibar.eus">ongizatea@elgoibar.eus</a>	08:30-14:00
<b>Berdintasun Saila</b>	94 3741050 <a href="mailto:berdintasuna@elgoibar.eus">berdintasuna@elgoibar.eus</a>	08:30-14:00
<b>Udaltzaingoa</b>	943 741394 <a href="mailto:udaltzaingoa@elgoibar.eus">udaltzaingoa@elgoibar.eus</a>	08:00-14:00 Arretarako ordutegia 24 orduko larrialdiak
<b>Eibarko Ertzaintza</b>	943 531700 / 943 531701 <a href="mailto:vdvg_eibar@ertzaintza.eus">vdvg_eibar@ertzaintza.eus</a>	08:00-14:00 Arretarako ordutegia 24 orduko larrialdiak
<b>Eibarko Lehen Instantziako Epaitegia</b>	943 03 34 10 Faxa: 943 03 34 00	09:00-14:00 Arretarako ordutegia
<b>Gipuzkoako Probintzia Fiskaltza</b>	943 000 717 <a href="mailto:FiscaliaProvincialdeGipuzkoa@justizia.eus">FiscaliaProvincialdeGipuzkoa@justizia.eus</a>	
<b>Osasun Zentroa Elgoibarko Lehen Arreta</b>	943 03 26 10	08:00-17:00 Arretarako ordutegia
<b>Mendaroko Ospitalea</b>	Telefonogunea: 943 03 28 00 Larrialdiak: 943 03 28 22	Larrialdiak, eguneko 24 orduetan.
<b>GLFZ (Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua)</b>	Publiko orokorra: 943 22 44 11 Profesionalak: 943 22 49 10 <a href="mailto:sfus@gipuzkoa.eus">sfus@gipuzkoa.eus</a>	24 orduz egunean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen (OGZ) arreta-ordutegitik kanpo.
<b>SOS Deiak</b>	112 943 447904– Faxa Gipuzkoan Ahoz komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat	24horas

### III. ERANSKINA: DATU PERTSONALEN BABESA

1. Datu pertsonalek **egokiak eta gehiegikeriarik gabeak izan behar dute, datu horiek jasotzeko arlo eta helburu jakinei, esplizituei eta legitimoei dagokienez**. Erakundeek -Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuak, Berdintasun Saila, Polizia Gorputzak, Osasuna-Osakidetza, etab.- datu asko eta askotarikoak bildu eta tratatu behar dituztenez, **arreta berezia** jarri beharko da protokoloa gauzatzeko garaian **igorritako informazioaren tipologian**, beharrezkoak ez diren datuak edo datu desegokiak bidaltzea ekiditeko, organoaren edo zerbitzuaren konpetentziei dagokienez.
2. Informazio trukeari dagokionez, **erakundeen eta zerbitzuen arteko datuak lagatzeko prozesuak legezkoa izan beharko du, bai interesdunak emandako baimenaren bitartez, bai legeak babestuta**. Ertzaintzaren informazioa protokoloan parte hartzen duten beste erakunde batzuei helarazteko garaian (adibidez, kasuen jarraipena eta kontrola egiteko prozesuetan), poliziak pertsonen datuak eman beharko dizkie gizarte-zerbitzuei edo biktimaren arretarako zerbitzuei (adibidez, ustezko erasotzailearen datuak); betiere, biktimaren baimena izanez gero. Are gehiago, batzuetan Administrazio bereko organoen artean ere bete behar da interesdunari jakinarazteko eta/edo bere baimena lortzeko betebeharra, datuak beste funtzio batzuetarako lagatzen baldin badira.

Azkenik, beste zerbitzu batzuek poliziarri delitu baten berri ematen badiote, ez dute pertsonaren baimenik behar, baina edozein erakundek, Ertzaintzak barne, zerbitzu gehigarriak eskaintzen badizkio biktimari (babeseakoak, soziala, buruko osasunekoak, etab.) eta horretarako informazioa helarazi behar bada, interesdunari jakinarazi beharko diote eta bere baimena jaso.

## IV. ERANSKINA: DATU PERTSONALAK LAGATZEKO BAIMENAREN AKTA

### DATU PERTSONALAK LAGATZEKO ADOSTASUNA

#### DATU PERTSONALAK LAGATZEA

Izen –abizenak Nombre-apellidos	
NAN - Pasaportea –Egoitza baimena - identifikaziorako beste dokumentu bat	
DNI-Pasaporte- Permiso de residencia- Otro documento de identificación	

#### Legezko ordezkaria edo arduraduna<sup>36</sup> Representante legal o persona responsable

Izen –abizenak Nombre-apellidos	
NAN - Pasaportea – Egoitza baimena - identifikaziorako beste dokumentu bat	
DNI-Pasaporte- Permiso de residencia- Otro documento de identificación	
Harreman mota Tipo de relación	

<p>Zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarritzko informazioa:</p> <p>Elgoibarko Udalak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, bere datu pertsonalak erabiltzen ditu helburu hauekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• "Indarkeria matxistaren aurrean jarduteko esparru koordinatua ezartzea.</li> <li>• Indarkeria matxistako egoeren prebentzioa, arreta, ikerketa eta ebazpena modu integralean kudeatzea, eragindako pertsonen babesa bermatuz".</li> </ul> <p>Informazio hori lagungarria izango da datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak egiteko, eta, aldi berean, estatistika- eta</p>	<p>Información básica sobre el tratamiento de sus datos personales:</p> <p>El Ayuntamiento de Elgoibar, como Responsable del tratamiento, hace uso de sus datos personales con la finalidad de:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• "Establecer un marco de actuación coordinado frente a la violencia machista.</li> <li>• Gestionar de forma integral la prevención, atención, investigación y resolución de situaciones de violencia machista, garantizando la protección de las personas afectadas".</li> </ul> <p>Esta información contribuirá a la realización de políticas públicas basadas en datos objetivos y podrá ser utilizada, al mismo tiempo, con fines</p>
---	--

<sup>36</sup> Beharrezkoa denean bakarrik bete - Complimentar solo en caso necesario

<p>ikerketa-helburuetarako erabili ahal izango da. Pribatutasun- eta segurtasun-neurriak hartuko dira, nortasun anonimoa uneoro mantenduz.</p> <p>Bestalde, edozein unetan ezezta dezakezu zure baimena, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta eramangarriak izateko eskubidea erabil dezakezu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo horren aurka egiteko eskubidea ere, <a href="mailto:dbo@elgoibar.eus">dbo@elgoibar.eus</a> helbide elektronikora komunikazioak bidaliz.</p> <p>Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu datuak babesteko gure politika <a href="https://elgoibar.eus/eu/privatutasun-politika/">https://elgoibar.eus/eu/privatutasun-politika/</a></p>	<p>estadísticos y de investigación. Se adoptarán medidas de privacidad y seguridad manteniendo en todo momento su identidad anónima.</p> <p>Por otra parte, puede revocar su consentimiento en cualquier momento y ejercer su derecho de acceso, rectificación, supresión, portabilidad de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de comunicaciones al correo electrónico <a href="mailto:dbo@elgoibar.eus">dbo@elgoibar.eus</a></p> <p>Para más información consulte nuestra política de protección de datos <a href="https://elgoibar.eus/es/politica-de-privacidad/">https://elgoibar.eus/es/politica-de-privacidad/</a></p>
--	--

<p>Baimena aldatu egin daiteke, baimena ematen ari dela argi gera dadin: adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>-Baimena beste erakunde batzuei datu pertsonalak lagatzeko, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak jarduteko udal-protokoloa osatzen ez duten beste erakunde edo organismo batzuei laga ahal izango zaizkizula, kasu hauetan bakarrik:</li><li>-Lagapena baimentzen duen lege-mailako arauen bat dagoenean, edo, halakorik ezean, berariazko baimena ematen duzunean.</li><li>-Lagapenaren helburua babesa eta laguntzako eta laguntza integraleko jarduerak koordinatzea da.</li></ul> <p>Eta horren guztiaren arabera, libreki ematen dut Lege Organikoaren araberrako adostasuna 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta Datuak Babesteko Europako Orokorra.</p> <p>Elgoibarren, 202x (e) ko _____aren __ (e) (a) n.</p> <p>Oharra: (Abenduaren 13ko 15/1999 Legea indargabetu egin zen Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa indarrean sartu zenean.</p>	<p>El consentimiento podría modificarse de tal forma que quede claro para que se está otorgando el consentimiento, por ejemplo:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>-Consentimiento para la cesión de datos personales a otras instituciones le informamos que sus datos personales podrán ser cedidos a otras instituciones u organismos que no formen parte del protocolo municipal de actuación, únicamente en los siguientes casos:</li><li>-Cuando exista una norma con rango de ley que autorice la cesión, o en su defecto, cuando usted preste su consentimiento expreso.</li><li>-La finalidad de la cesión es su protección y la coordinación de actuaciones de apoyo y asistencia integral.</li></ul> <p>Y conforme a todo ello, otorgo libremente el consentimiento conforme a la Ley Orgánica Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y el Reglamento General Europeo de Protección de Datos.</p> <p>En Elgoibar, a..... de ..... del 202x</p> <p>Nota: (La Ley 15/1999 de 13 de diciembre, fue derogada por la entrada en vigor de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.</p>
---	--

<p>Esku-hartze integral eta koordinaturako nire datu pertsonalak lagatzeko aukera ematen diet markatutako erakundeei:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Elgoibarreko Gizarte Zerbitzuak</li> <li><input type="checkbox"/> Osasuna (Osakidetza)</li> <li><input type="checkbox"/> Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuna (Ertzaintza)</li> <li><input type="checkbox"/> Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politika Saila</li> <li><input type="checkbox"/> Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua</li> <li><input type="checkbox"/> Gipuzkoako BLZ</li> <li><input type="checkbox"/> Epaitegi Dekanoa (Eibar)</li> <li><input type="checkbox"/> Enplegua (Lanbide)</li> <li><input type="checkbox"/> Berdintasuna (Emakunde)</li> <li><input type="checkbox"/> Arartekoa</li> <li><input type="checkbox"/> Zerbitzu juridikoa</li> <li><input type="checkbox"/> Zerbitzu psikologikoa</li> <li><input type="checkbox"/> ..... Elkarteak</li> <li><input type="checkbox"/> ..... Abokatuak</li> <li><input type="checkbox"/> Beste zerbitzu batzuk (berariaz identifikatu)</li> </ul>	<p>Marco las entidades a las que permito se cedan mis datos personales para una intervención integral y coordinada:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Servicios Sociales de Elgoibar</li> <li><input type="checkbox"/> Salud (Osakidetza)</li> <li><input type="checkbox"/> Seguridad del Gobierno Vasco (Ertzaintza)</li> <li><input type="checkbox"/> Diputación Foral de Guipuzkoa. Departamento de Política Social</li> <li><input type="checkbox"/> Servicio Foral de Urgencias Sociales de Guipuzkoa</li> <li><input type="checkbox"/> SAV Gipuzkoa</li> <li><input type="checkbox"/> Juzgados Decano (Eibar)</li> <li><input type="checkbox"/> Empleo (Lanbide)</li> <li><input type="checkbox"/> Igualdad (Emakunde)</li> <li><input type="checkbox"/> Ararteko</li> <li><input type="checkbox"/> Servicio Jurídico</li> <li><input type="checkbox"/> Servicio Psicológico</li> <li><input type="checkbox"/> Asociación .....</li> <li><input type="checkbox"/> Abogada/o .....</li> <li><input type="checkbox"/> Otros servicios (identificar expresamente)</li> </ul>
---	---

<p><b>BAIMEN INFORMATUA ADINGABEAK EGONEZ GERO</b></p> <p>Nire alaba/semek 14 urte baino gutxiago izanda, haren ama/tutorea naizen aldetik, baimena ematen dut haren datu pertsonalak biltzeko eta aipatutako erakundeei lagatzeko, eta haiek aipatu ondorioetarako eta helburuetarako tratatzea baimentzen dut.</p> <p>Eta horrela jaso dadin, eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut.</p> <p>Data eta emakumearen sinadura</p>	<p><b>CONSENTIMIENTO INFORMADO EN CASO DE PRESENCIA DE MENORES DE EDAD</b></p> <p>Siendo mi hija/o menor de 14 años, doy mi consentimiento como madre/tutora para la recogida de sus datos personales y su cesión a las entidades mencionadas, autorizando el tratamiento de los mismos a efectos y finalidad señalada.</p> <p>Y para que conste y surta efectos oportunos, firmo la presente.</p> <p>Fecha y firma de la mujer</p>
---	---

## V. ERANSKINA: ARRISKUA BALORATZEKO TRESNA<sup>37</sup>

Herramienta para Valoración de Riesgo en mujeres víctimas de violencia de género. II

<b>VALORACIÓN DE RIESGO/PELIGRO DE MUERTE O ATAQUE FÍSICO SEVERO</b> <b>Listado orientativo de Indicadores de riesgo (en función de lo verbalmente expresado por la mujer víctima)</b>	
<input type="checkbox"/>	* Ataques previos con riesgo mortal: ahorcamientos, asfixia, ataque con arma blanca, contundente o de fuego (aunque no haya sido disparada), golpes y heridas graves, intento de atropello con el coche, precipitarla por la escalera, envenenamiento...
<input type="checkbox"/>	* Amenazas de muerte a la víctima
<input type="checkbox"/>	* Intento o amenaza de suicidio por parte del agresor
<input type="checkbox"/>	* La afectada ha tenido que salir de casa por riesgo de muerte
<input type="checkbox"/>	* El agresor es convicto o ex convicto por delitos contra las personas
<input type="checkbox"/>	* Habiéndose dictado medidas de protección de no acercarse a la afectada, el agresor las irrespeta sistemáticamente, irrumpe por la fuerza en la casa o acosa a la afectada en su lugar de trabajo o en otros lugares
<input type="checkbox"/>	* La víctima considera que el agresor es capaz de matarla
<input type="checkbox"/>	* La víctima está aislada o retenida por el agresor contra su voluntad en el momento o lo ha estado previamente
<input type="checkbox"/>	* Abuso sexual del agresor contra los hijos o hijas u otras personas menores de edad de la familia cercana, así como tentativa de realizarlo
<input type="checkbox"/>	Maltrato físico contra los hijos e hijas
<input type="checkbox"/>	La víctima está recientemente separada, ha anunciado al agresor que piensa separarse o abandonarlo, y ha puesto una denuncia penal o ha solicitado medidas de protección por agresiones contra ella o sus hijas e hijos o ha existido amenaza por parte del agresor de llevarse a sus hijas o hijos más pequeños si decide separarse
<input type="checkbox"/>	Abuso de alcohol u otras drogas contra el agresor
<input type="checkbox"/>	Aumento de la frecuencia y gravedad de la violencia
<input type="checkbox"/>	La víctima ha recibido atención en salud como consecuencia de las agresiones o ha recibido atención psiquiátrica producto de las agresiones vividas
<input type="checkbox"/>	Se han impuesto medidas legales y de otro tipo
<input type="checkbox"/>	El agresor tiene antecedentes psiquiátricos (internamiento psiquiátrico, medicación por depresión)
<input type="checkbox"/>	El agresor es una persona con acceso, y tiene conocimiento en el uso de armas de fuego y/o trabaja con ellas o porta armas
<input type="checkbox"/>	Resistencia violenta a la intervención policial o a la intervención de otras figuras de autoridad
<input type="checkbox"/>	Acoso, control y amedrantamiento sistemático de la víctima
<input type="checkbox"/>	Que haya matado mascotas

<sup>37</sup> ERANSKIN honetako arriskuak baloratzeko txantiloia orokorra da eta behar duten sistema eta zerbitzuentzat dago eskuragarri, baina, hala ere, sistemek beren txantiloia propioa erabiltzen jarrai dezakete.

**Herramienta para valoración de Riesgo. I**
**ESCALA DE PREDICCIÓN DE RIESGO DE VIOLENCIA GRAVE CONTRA LA PAREJA  
(EPV)**

Nombre:

Expediente:

Fecha:

Evaluador:

<b>I. Datos personales</b>	<b>Valoración (0 o 1)</b>
1. Procedencia extranjera del agresor o de la víctima	
<b>II. Situación de la relación de pareja</b>	<b>Valoración (0 o 1)</b>
2. Separación reciente o en trámites de separación	
3. Acoso reciente a la víctima o quebrantamiento de la orden de alejamiento	
<b>III. Tipo de violencia</b>	<b>Valoración (0 o 1)</b>
4. Existencia de violencia física susceptible de causar lesiones	
5. Violencia física en presencia de los hijos u otros familiares	
6. Aumento de la frecuencia y de la gravedad de los incidentes violentos en el último mes	
7. Amenazas graves o de muerte en el último mes	
8. Amenazas con objetos peligrosos o con armas de cualquier tipo	
9. Intención clara de causar lesiones graves o muy graves	
10. Agresiones sexuales en la relación de pareja	
<b>IV. Perfil del agresor</b>	<b>Valoración (0 o 1)</b>
11. Celos muy intensos o conductas controladoras sobre la pareja	
12. Historial de conductas violentas con una pareja anterior	
13. Historial de conductas violentas con otras personas (amigos, compañeros de trabajo, etc.)	
14. Consumo abusivo de alcohol y/o drogas	
15. Antecedentes de enfermedad mental con abandono de tratamientos psiquiátricos o psicológicos	
16. Conductas de crueldad, de desprecio a la víctima y de falta de arrepentimiento	

17. Justificación de las conductas violentas por su propio estado (alcohol, drogas, estrés) o por la provocación de la víctima	
<b>V. Vulnerabilidad de la víctima</b>	<b>Valoración (0 o 1)</b>
18. Percepción de la víctima de peligro de muerte en el último mes	
19. Intentos de retirar denuncias previas o de echarse atrás en la decisión de abandonar o denunciar al agresor	
20. Vulnerabilidad de la víctima por razón de enfermedad, soledad o dependencia	

<b>VALORACIÓN DE RIESGO DE VIOLENCIA GRAVE</b>		
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bajo (0 a 4)	Moderado (5-9)	Alto (10-20)

Fuente: Echeburúa, E.; Fernández Montalvo, J.; Del Corral, P. (2009) "Predicción de riesgo de la violencia grave de la pareja: un nuevo instrumento de evaluación" en Echeburúa, E., Fernández Montalvo, J., Del Corral, P. *Predicción del riesgo de homicidio y de violencia grave en la relación de pareja. Instrumentos de evaluación del riesgo y adopción de medidas de protección*. Generalitat Valenciana: Centro Reina Sofía, serie Documentos no. 15

## VII. ERANSKINA: KASUAK BIDERATZEKO FUTXA

<b>Izen-abizenak /</b> Nombre y Apellidos:	
<b>Pasaportea/NAN/AIZ:</b> Pasaporte / DNI / NIE:	
<b>Jaiotze data /</b> Fecha de nacimiento:	
<b>Jaioterra/</b> Lugar De Nacimiento:	
<b>Nazionalitatea/</b> Nacionalidad:	

<b>Helbidea /</b> Dirección:		
<b>Herria /</b> Localidad:		<b>Pisua/</b> Piso:
<b>Telefonoa /</b> Teléfono:		

### ESPEDIENTEARI BURUZKO INFORMAZIOA/ INFORMACIÓN SOBRE EXPEDIENTE:

--

#### Berarekin bizi diren pertsonak (izen-abizenak eta ahaidetasuna)

Personas con las que convive, si fuera el caso (nombre, apellidos y parentesco):

#### Beste txosten edo agiririk aurkeztu al da? BAI EZ


Se aportan otros informes o documentos: BAI EZ

#### DATA / FECHA:

#### SINADURA/ FIRMA:


## VIII. ERANSKINA: FLUJOGRAMAK

### GIZARTE EREMUA: GIZARTE LARRIALDIKO KASUETARAKO PROZEDUREN ETA JARRAIBIDE OROKORREN MAPA



**LEYENDA:**  
Azul: operadores y servicios del sistema  
Rosa: otros Sistemas  
Negro: procedimientos clave  
Gris: diferentes opciones itinerario

# OSASUNARLOA: JARRAIBIDE OROKORRAK 1. MAILAKO ATENTZIOAN, ATENTZIO ESPEZIALIZATUAN ETA ATENTZIOAN



## POLIZIA-EREMUA: PRESAZ JARDUTEKO PROZEDUREN ETA JARRAIBIDE OROKORREN MAPA

